

## Zortziko hautsiak, tragikotasunaren ildotik (1976)

MAITE ZULAIKA

**Z**ortziko hautsiak izeneko liburuarekin, Luis Mari Mujikak, olerkigintzan jadanik bide luzea egin ostean, lana neurtugabeko poesiatik neurgintzaren alorrera eramaten du. Ibilbidea erraza izan ez arren aurkitzen dituen oztopoak trebezia handiz gainditzen ditu; 1976. urteko "Kritika Saria" irabazi zuen bere poesiak *Hitzak ebakitzean* bildumarekin.

Liburu hau idatzi arte zortzi urte igaro baziren ere, ez da zergaitik idazlearen krisialdi batetaz hitz egin beharrik, gogoeta sakonaz baizik. Ez da bere poesigintzaren etapa berria, origiltasunez dotoreki burutu-tako lan baten jarraipena baino.

Lan poetiko hau, 60. hamarkadan Euskal Herria jasaten ari zen, egoera soziopolitikoarekin bat dator. Francoren diktadura militarren menpean poesigintza soziala nagusitu egiten da, zenbaitetan salaketazko poesia nagusituz. Garaian garaiko idazleek egin zuten bezala, Luis Mari Mujika, errepresio zapaltzailearen aurkako iritziz pertsonalak ematea zaila zenez, sugerentzien ildotik bide berriak aurkitzeko beharrean aurkitu zen: sinbolismoaren erabilera surrealismoaren bidez adierazi zuen, estetikan teknika berriak ikertuz.

Euskal poesiaren esparruari goitik-beherako astindua ematen badio ere, agerian uzten du euskal hizkuntzarekiko duen konpromezua, hots, beronen erabilkera. Existenzialismoaren aztarnak nabariak izateaz gain, bere poesi lanetan ukitu sozial gardenak antzematen zaizkio, batez ere, arretaz landutako gaietan. Horrela, poetaren kezka etengabeak islada sinboliko batez agertzen dira, garai hartako euskal gizartearen gora-beheren lekuko zuzen izanik.

Luis Mari Mujikaren iritziz, poesia askean ez dira lantzen euskarak eskaintzen dituen baliabide guztiak, eta honekin batera ez zaio bidezkoa iruditzen poesia landua eta bertsolaritzaren artean askotan sortua izan den banaketa. Hau dela eta, erromantzeak garai batean ezarritako eruedetatik ihesiz, estilistikako baliabide berriak bilatzen ditu: etenak, parentesiak, galdera irekiak, e.a., besteen artean. Bere poesiaren neurtitza aztertu ostean, *30. belaunaldiko* euskal olerkariak egin zuten

lez, Sabino Aranak proposaturiko arauak jarraitzen ditu (sinalefak, diptongoen loturak,...), gure poetarentzat poesia landurako ongien egokitzen den eskola berea delarik.

*Zortziko hautsiak* poesia bilduman agertzen den beste ekarpen berria erromantze zenbaiten kera dramatikoak da. Garraztasun eta dramatikotasun horiek Francoren diktadurapean Euskal Herriaren egoera latzarekin bat datoz. Metaforismo *irrazionalak* eta sinbolo primitiboak (ilargia, labana, ura, ibaia, arrainak, zaldia, kromatismo paisajistikoaren erabilkera aurrezantzu bezala,...) gertakizun datualetan giro tragikoa sortzera datoz. *Txikiri* eskainitako *Herio-usaina* izeneko poemak argi isladatzen du dramatismoz beteriko heriotzaren trataera. García Lorcak *El Romancero gitano* izeneko poesia bilduman egin zuen bezala, heriotzaren trataera ez da modu natural batez suertatzen edozein gizabanakoaren bizitza-zikloa jarraituz, pertsonaien etsaigoa bortizki eraginda baizik. Dena den, emaniko trataera antzekoa izan arren, eszenatokiak ez direla berdinak aipatu behar da: *Zortziko hautsiak* izeneko poema-bildumak Euskal Herria du eszenatoki (garai hartako Euskal Herriko giroa), bertan garatutako gertakizun guztiak bilbe gorri batez koloreztatuz: *Zubipean korkoin bi, Odol gaiztoak, Martin-en erromantzea, Zurriolako zubia...* Poema orok drama irudi irrazionalen errotan egituraturik eskaintzen du.

*Zortziko hautsiak* poesi-bildumari Juan Mari Lekuonak eginiko prologoan zera adierazten du: "...Gure herriak igaro dituen zailtasun garaia, eta poetek honi hizkuntza egokiz erantzuteko egin duten ahalgina, koordenada interesgarriak izan daitezke Luis Mari Mujikaren oraingo liburu hau non koka erabaki dezagun: zatirik indartsuena, ene gustorako, herriaren tragedia dramatizatzeko egina du, erotismoa eta teluria aipatzen badizkigu ere mintzo apalago batetan. Eta horretarako sinbolismoa, surrealismoaren bitartez, kerantza berritan mamitzen digu."(1)

Aipatu den bezala, tragikotasunez ziprztindutako poema hauetan poesia sozial baten aztarnak azaltzen dira, baina ez Gabriel Arestik landutako eran, gure olerkariak estilo pertsonal batez garai hartako euskal poesigintzan nagusitzen zen adar ideologikoa agerian utziz baizik. L.M. Mujikarengan arazo soziala, salaketa eta heriotza, beti giro bertutetsu batean garatzen dira, jarrera prosaiko hutsak baztertuz.

Liburu hau 25 olerkik osatzen dute. Luis Mari Mujikak olerkari ezberdineko eraginak jaso arren, oso iradokitzaile suertatzen da bere zenbait sinboloen erabilpena; horietariko batzuk: *hortza, kristala, metala, labana, lizarra, farra, odola, okrea...* Gaiaren aldetik, arnas

## ERAGINAK ET A EKARPEN LITERARIOAK

(1) *Zortziko hautsiak* poesia bildumaren prologoa (11.or). LEKUONA, J.M. " Hizkuntza poetikoa lantzen".

tragikoa duten poemak eta herriaren sufrimendua isladatzen dutenak nagusi-tzen dira, maitasunezkoak baino. Tragikotasun hori naturaren fenomeno edo adierazpen kosmikoen bitartez eskainia dago, barneko sentimenduak kolore ezberdinez irudikatuz. Naturaren fenomeno guztiak aurrezantzuz beterik daude.

Eraginei dagokionez, Espainiako 27. belaunaldiko olerkari batzuen aztarnak, Garcia Lorcarenak, adibidez, eta Nerudarenak, batik bat, azalarazten dira gure olerkariaren ekoizketa poetikoan. Islada horiek ez dira kasualitate huts Frankismoaren legepean erreprezioa eta zentsura izugarria zenez, euskal ekoizketa literarioa aztoraturik kausitu zen, eta, askotan, erdal liburueta jo behar izan zuen hango olerkariengandik zerbait mamitu ahal izateko. Beste datu interesgarri bat ere aipatu beharra dago: behin 1968. urtetik aurrera borroka armatuaren sorrera, *Burgos*-eko epaiketa eta erreprezio eta zentsuraren handitzea eta zorroztea, ematen dira. Gerra ostean ikusi izan zen bezala, honek eten bat eragiten du nahitanahiez olerkaria eta errealtatearen artean. Ez dago adierazpen-askatasun osorik, eta horregatik, sinbolismoaren zergaitia espresibidetzat hartzen da bitarteko modura. Prozesu honetan poesia bera irabazten aterako da, gehiago landuko delarik.

Euskal poesigintza modernoan sinboloen erabilpena exotikoa eta ezohikoa suertatzen bada ere, bertan azaltzen diren eszenatokiak euskaldunak direla berma daiteke. Euskal paisaia lekuko bisemiko da, kasik, beti; eta tragikotasunaren giroak Euskal Herriaren gertakizun politikoak isladatzen ditu.

Kontuan hartu beharrekotzat jotzen da L.M. Mujikaren poesian ez direla aurkitzen Orixeren *Euskaldunak* poemaren ailetako eraikuntza handiko olerki luzeak; poesia modernoari dagokionez, kera informal eta hurbilagoak kausitzen ditugu; batasun aske bera Gandiaga, J.M. Lekuona (*Ilargiaren eskola*, eta egungo beste euskal olerkari gehienetan). Mujikaren olerkigintzan aurki daitezken azpiko unitate formalak surrealismoaren ildotik doaz, eta honako hauek dira besteen artean: alditasuna, oharmen estetikoa, herri zanpatuaren borroka, heriotza, tragediaren xarma eta kezka existentziala. Horregatik, gure olerkariaren unitate formalak ikuspuntu honetatik ulertu behar da, eta ez eraikuntza poetiko handi batetik, noizean behin horrelakoak aurki baditezke ere.

Lan poetiko honetan, gaiari dagokionez, hiru poema-mota kausi daitezke:

a.- Existentzialak: Hats garratza duten poemak, ezkortasun-sentimendua etengabeki eta sakonki irudikatuz. Adibidez, *Atzo negu zen* olerkian norbanakoaren aldarteak lau urtesasoiaren bitartez isladatzen dira. Ibaiaren eta udazkenaren joana ere denborazko gogoetan txertatzen da.

b.- Erotismoarekin loturikoak: Bertan erotismoaren ikuspegi bortitz eta primitiboa agertzen da, aire erromantzeatu batean. "*Etxe baten er-  
tzean*", "*Ederra zera, ederra*", "*Zure soinaren hibaia*" haragikoitasun handi eta surrealista baten fruitu dira. Hona hemen adibide zenbait:

"...bi bularren piloan / su mozkorra dantzari." (58.or)  
 "...bular horri, esan, esan, / farrak nork jarri dizkio...?" (64.or)  
 "...Bere bularrak gogor / (kozkor, mozkor) dira..." (67.or)  
 "...ardozko desiretan/ zutaz asean naiz,..." (68. or)

d.- Tragikotasunaren isladak: Liburuan nagusi dira, eta, baliabide poetikoaren aldetik hobekien lortuak. Genero dramatikoaren eszenatokia L.M. Mujikaren poesian galgarriago bihurtzen da -euskal lirika zaharraren genero dramatikoarekin konparatzen bada (*Mondragoeko erreketak, Beterretxeren khantoria*, adibidez) halako aurrezantzuz bildua dagoelarik-.

Tratamendu honen adibide bat *Txikiri* eskainitako poeman argi ikus daiteke:

*"Ah, ah, odola!! Metalak  
 muinak ireki dizkio,  
 goiza odol mozkorretan,  
 lurak lotsezko jario,  
 izarren ohean negar  
 busti bat... Zer, zer da? Auskalo!"(2)*

Zati poetiko honetan ikuspegi estetiko eta basatia bat datoz.

*Zortziko hautsiak* poeman olde tragiko eta existentzialak olerkariak ondoren idatziko zituen bost poema-liburuetan xehakatuko dira. Hala eta guztiz ere, irudikeriaren arloan Mujikak gaztelaniar poesiarako makurrera handia dago, baina beti Euskal Herri gaitzaren eszenatokia bereganatuz. Gure olerkariak ongi daki bere barnean zer nolako ibilbidea jarraitu duen, egoera soziopolitiko kontutan hartuz, aurrera egin ahal izateko.

Luis Mari Mujikaren olerkigintza hurbiletik behatuta, alde tematikoa aztertzea premia kotzat jotzen dugu. Tragikotasuna ongi irudikatzeaz gain, hari existentziala eta erotismoa aintzakotzat hartzen ditu, betibarne beharrek eraginda.

*Bakardadea* Mujikarengan joera bezala antzeman daiteke, batez ere, naturaren misterioan begiztatzen denean. Bakardadea etsipenari lotua dago, eta askotan naturaren fenomenoekin atxikitzen da. Bakartasun existentziala isladatzen da hurrengoan:

## ALDE TEMATIKOAREN AZTERKET A

(2) *Txikiri* eskainitako "*Herio usaina*" olerkiaren zatia. Bertan tragikotasunaren tratamendua argi isladatuta. (90-91.or)

*"...Zezenak ote nere  
gogobero zailak,  
zezenak ote nere,  
barneko ekaitzak?..."(3)*

Goian aipatu dugun bezala, tragikotasuna Luis Mari Mujikaren ezaugarri berezietakoa da. Heriotza modu ezberdinez irudikatutik azaltzen da poeman. Gehienetan zuzen agertzen bada ere, ez da horrela beti jazotzen, sarritan kromatismo paisajistikoari estuki loturik eskainiko baita.

Bizitza eta heriotzaren inguruan olerki zenbait biltzen da, non gure olerkariak mingarri diren gizabanakoaren errealitateei aurre egiten dien, batez ere, berak miretsitako pertsonen herioen kasuan. Drama horien aurrean sentimenduak komunikatzeko beharra esperimentatzen du. Elementu konnotagarriak heriotzaren errealitatea osatzera datoz. Bizitzaren ukatzea *gaua* izanen bailitzan ikusten du. Gauaren mundura barneratuta, ilunak esanahi ezberdinak bereganatzen ditu: hoztasuna, gabezia, isiltasuna, artegatasuna... Itzaleen eremuan ere barneraketa bera heriotzaren aurrezantzu modura.

*"...Gauaren maindirean  
mamu beltzak mozkorti,  
dantza makabroetan  
kriminal izu, iharrek  
itzaletan irrintzi,  
nork itzali du gaua,  
ilargia puska, hautsi...?(4)*

Luis Mari Mujika bi motatako heriotzaz mintzo da: bata, heriotza naturalaz naturaren fenomenoekin lotuaz; eta, bestea, heriotza bortitza edo hilketaz etsaien eskutik. Biak *Zortziko hautsiak* izeneko olerki-bilduman nabarmen badira ere, gure olerkariak interes handiagoa jartzen du bortizkeriaz suertatutako herioaz, hau da, sistema politiko zehatzean borroeroen eskutik emanikoaz. Honen adibide argia ondorengo olerkietan beha daiteke: "*Zubipean korkoin bi*", "*Zalditik berera*", "*Santa Ageda-ri*", "*Martin-en erromantzea*", "*Zurriolako zubian*", "*Herio usaina*" delakoetan. (5)

Heriotzaren beldurra ez da gure olerkariaren ahultasun psikologikoren berezkotasun bat; indarrarekin bat datorren zerbait baino, hots, odolezko ibai baten gainean eraikitako sistema politiko bati eginiko

(3) "*Bizia dut barnean*" izeneko olerkiaren zatia. (40-41.or)

(4) "*Pena berdetan*". (38.or)

(5) "*Zubipean korkoin bi*". (44-45.or) / "*Zalditik berera*". (50-51.or) / "*Santa Ageda-ri*". (60-62.or) / "*Martin-en erromantzea*". (76-78.or) / "*Zurriolako zubian*". (83-85.or) / "*Herio usaina*". (88-92.or).

salaketa. Edozein objektutan heriotzaren aurrezantzua sumatzen da, heriotza leku guztietan egonik (*ilargia, gaua, arratsa, labanak, odola, zaldia, zezena...*). Dohainikako gaiztakeria zezenaren irudian sinbolizatua dago, zeinek bizirauteko premiazko botere suntsitzailea zabalarazten duen:

"...Zezenak ote nere  
gogobero zailak,  
zezenak ote nere  
barneko ekaitzak?..." (6)

Irrazionaltasunaren giroak olerki bilduma koloreztatzen du. Olerkaria naturaren mundu iraunkorrekarekin bat egiten saiatzen da, bertan bizitzaren ziklo kosmikoenak etengabeko ibilbidea jarraitzen dutelarik. Ilargiak, heriotzaren behatzaile edo sinbolo bezala, gizabakoaren zorigaiztoko geroa azpimarratzen du. Geroa zeruan idatzia dago, eta ilargia morez tindatzen hasten da herioa ailegatzeaz dagoenean:

"...Begira , begira nolan  
zikintzen den ilargia  
- zergatik moretu zera,  
tristatu, ene argia..."(7)

Beste aldetik, hil zorian dauden olerkien protagonista inguratzen duten mundu mineralak, landaretzak eta animaliek heriotza prozesuan parte hartzen dute, lekuko zuzenak izanik:

"...Goizeko zortzirak dira,  
gizonek kanposainduko  
paretara "Txikirekin",  
errekan barboek malko,  
ilargia tristeziatz..."(8)

Eskena latzenak berdez margotzen dira, eta Garcia Lorcak erabili izan zuen bezala, *berdea* heriotzaren tindagai biketsu da. Kolore honek eragiten duen min fisiko eta psikikoaren sumatzea giro magikoarekin batzen da. Kanpoko errealitatea giro xorginean sartzen da, sortutako mundu onirikoan, indarrez, txertatzen:

(6) "Bizia dut barnean". (39-41.or).

(7) "Zalditik berera" olerkiaren zatia. (51.or)

(8) "Herio usaina" olerkitik aterata. (90.or)

"...Zeruan metalak hotsa,  
burdin basatia haserre,  
barneko dolore hontan  
lizar hotsak negar berde..."(9)

*Tenporalitatea* edo *alditasunari* dagokionez, Luis Mari Mujikaren aipamenak jarrera animikoetan sartu beharko lirateke. Honen arabera, esan daiteke gaua, eguna, goiza, arratsa eta abar denborazko zentzu horretan ukitzen dituela. Gauak eta arratsak -goizak baino- esanahi bisemiko handiagoa jasotzen dute, subjektibismo irrazionalak horietan zama bortitzaagoak lortuz.

*Pena berdetan* olerkian *mamu beltzak* egokitasun animikoa du, bere egitatea ezinezkoa suertatuz gaueko tenorean ez bada, hau da, *gaua -ren maindirean*(10). Era berean, arratsa heriotzaren ordu da, nahiz beti ez gertatu hala.

Olerkariaren ezkortasuna eta etsipena gehienetan arratsa edo gauarekin (iluntzearekin) etorri arren, zenbaitetan larriki goiznabarrarekin itsasten da. Koadro sinboliko zorrotz hauek *Txikiri* eskainitako *Herio usaina* olerkian argi antzeman daitezke. Eguna argitu orduko, heriotza dator odolez lainoztaturik.(11) Aldikotasun honetan ez da atseginezko tarterik sortarazten: asperra, zoramena, barneko oldarrak, haserrea, malenkonkia, gordintasuna, dolorea, nekea eta tristezia baino, beti olerkariarengan nagusitzen diren sentimenduak izaki.(12)

Era berean, denboraren iragankortasuna suma daiteke. Iragankortasun hori olerki existentzialarekin bat dator, eta gizabanakoaren izate horrek denboraren ihesa edo aurrera joatea eragiten du, sarritan, barneko zalantzak sortaraziz. Dena den, iragankortasunaren erabilera hau ez da kasualitate hutsa, momentu gihartsuenak adierazteko nahiaren islada baino:

"...Bi haritzen erdian  
ilargi morea argi,  
arraultz hain borobila  
hor goian nork du jarri?..." (13)

(9) "Martin-en erromantzea" (78.or)

(10) "Pena berdetan". (38.or)

(11) "Herio usaina" olerkian argi isladatzen zaigu heriotzaren ordua: "...Goizeko zor-tzirak dira, /gizonek kanposainduko / paretara "Txikirekin", / errekan barboek malko, / ilargia tristeziaz, / oiuhu bat entzun da: "Al blanco!"/..." (90.or)

(12) "Pena berdetan", "Zubipean korkoin bi", "Gaeuan", "Zalditik berera", "Samin sakon berdeetan", "Santa Ageda-ri", "Odol gaiztoak", "Martin-en erromantzea", "Zurriolako zubian", "Zoroaren egia" eta "Herio usaina" izeneko poemetan arratsa eta gauarekin loturiko sentimendu ezkorrak aurki daitezke.

(13) "Pena berdetan" (38.or).

Beste aldetik, azpimarratzekoa da Luis Mari Mujikak irudikatzen duen erlijio-kutsua. Erlijioarekiko menpekotasuna ukazina suertatzen da berarengan, gehienbat, *erreguekin* loturiko tematikan. Hala eta guztiz ere, ez da erabateko menpekotasunaz hitz egin behar, garaian garaiko euskal gizartean Elizak izan zuen eraginaz baizik. Erreguak kristau liturgiaren mintzoan ematen dira. Kristautasuna ongi irudikatuturik azaldu arren, bertako gai nagusienetariko bat norbanakoaren fedearen galera da. Horren gabezia barneko hutsunean pulunpatuko da, izpituaren heriotz bezala:

*"...Zer egin hain ezer, hain huts,  
argiak ilundi dira,  
ah, bide honen nekean  
nork gaua egin argia,  
ene gaua ta fede-eza  
argi itzalekin bekida!!" (14)*

Alde tematikoaren ildo jarraituz, *amodioaren* trataerak aipu berezia merezi du. Ahozko eta idatzizko euskal literaturan gairik ukituena gure lirika tradizionalan, batik bat, maitasuna da. Gertakizun tematiko hau, askotan, drama liriko bilakatzen da. Amodioa harrotzean, gure olerkariak ez du atzean lagatako garaiek ezarririko eragozpen handirik aurkitzen.

Hau dela eta, *Zortziko hautsiak* poemategian maitasunaren trataerak ez du euskal lirika zaharraren ildoarekin bat egingo, sentsualitate eta erotismoaren nahasmenduan garatzen etorriko da baino. Amodioaren alderdi sentsualak, zoramenezko ametsetan, tabuek ezarritako oztopotik urrun hedatuko dira, ukituriko guztia erotismoz zipriztinduz. Bi maitasun mota irudikatuko dira *Zortziko hautsiak* bilduman: bata, maitasunik lortuko ez duen maitalearen amodioa, hots, erantzunik gabeko maitasuna; bestea, ezkutuko maitasunaren berririk izanen ez duen maitalearen amodioa, hau da, maitasun sekretua. Lirika zaharrean amodioaren esparuan antzeko trataera erabili bazen ere, gehiengotan ez da Luis Mari Mujikak olerki-ekoizketan erakutsiriko zama erotikora iritsiko. Bilduma honetan amoranteak plazer fisikoa beste gauzen gaintik bilatzen du, ezkutuko maitasunak amets-munduaren ur handietan ibiltzea behartzen diolarik. Amodioaren alderdi bortitzenak irudikatzen dira, beraz. Adibidez:

*"...Ah, ah (ze gauza, ze gauza),  
zure ondora orduko  
grin hauek (hortzak bailiran)  
minezko dira bidrio,*



*kristalak hausten zaizkida  
(hausten gordin, beraldiko),  
ah, sexoaren ekaitza  
ze latza nik eta sendo...!"(15)*

Isladaturiko sentsualismoa erotismoaren arloan pulunpatzen da, eta sentsualismo horren ikuspegi gaiztoaren aipua nabarmentzen doa maitasunaren tematika harrotzen den heinean. Honen arabera, eta aurrera jarraitu baino lehenago, esan beharra dago, sentsualitatea eta sexualitatea, beti, ez datozela bat, sentsualitatearen barruan anitz arlo ikus daitekelarik. Dena den, Mujikak sexualitate hori irudikatu ahal izateko erabiltzen dituen sinboloak sentsualismoz betetzen dira: *ardoa, odola, zezena, ekaitza, kristala, labana, sua, izarra, hesia, ura, basoa, ibai, olatua, lehoia, pinudia, lorea, kobrea, hortzak, arana, anpolaia, sagarra, oihana...* Gai honen inguruko eraikuntza estetikoak irudi irrazionalez hornitzen da.

Sinbolo gehienak tragediaren islada dira, eta horrela azaltzen da *odolaren* irudia, hots, gertaera gaizto baten aurrezantzu bezala:

*"...Odol basatien kolpez  
atoz, atoz,  
bai, atozkida, enea,  
dena desiren su, oihu  
ta garraisi.  
Betiro hibai beltz zaitea!..."(16)*

Odolari datxekion garrantziaz gain, mota honetako olerkietan ardori emanikoak leku aparta hartuko du, tratamendu berezia jasoz Luis Mari Mujikaren erotikan. Ardoa nahikari sexualaren irudi sinboliko izanen da, eta antzeko tratamendua beha daiteke Baudelaire eta Verlaineren ekoizketa literariotan. Besteetan, barne saminaren sendagarri bezala isladatuko da. Honen adibidea "*Martin-en erromantzea*" izeneko olerkian. Olerkariak irudiaren alderdi ezberdinak ikusteko aukera eman arren, *ardoa*, zalantzarik gabe, sexualismoaren alde gartsu eta botitzenen modura barruratzen da:

*"...Gorputzaren deia gaitza  
da, bizkorra,  
zentzunok min dute, grina,  
ardo gogorren zarata*

(15) "*Zure soinaren hibaiak*" (64.or). Maitasunezko olerkietan zehar sentimena da nagusi, garratzasuna, alegia. Sentimenaren oihartzunak saminaren bitartez isladatzen dira.

(16) "*Asmo hedatuak*" (53.or).

*hemen da amil...  
Maitea, ah, zein ugaria!..." (17)*

Erotikaren mintzo poetikoan *uraren* irudia eta *emakumearen* anatomiazko zehaztapen sensual zenbait ere agertzen da: *gerria, besoa, izterra, eskua, begia, oina, bularra, besoak, ezpainak, azala, behatzak, hankak, belauinak, biloa, sabela...* Jarrera sensual guztietan begiek eta begiradek ezinbesteko garrantzia hartzen dute maitalearen eskutik, eta, era berean, soinaren biluztasunak (*urak* adierazten duen testuinguru sensuala bestalde ez da gutxiagokoa):

*"...Begira uren isuria  
egarri hau asetzeko,  
atsegina, bai, ze gizen,  
ze bortitz, ze beraldiko!..." (18)*

Alde tematikoarekin gehiegi ez luzatzearen, laburbilduz, esan daiteke Luis Mari Mujikak aipaturiko gaietan erabilitako hizkuntza sugerentea dela, eta ibilbide berdinatik jarraituko duela olerkariak gerora ere ekoiztutako olerki-lanetan.

Herriaren interpretapen agonikoan borroka izanen da gai bortitze-netakoa. Olde existentzialista duten poemetan, beti bezala, olerkariak aldikotasuna izanen du azpigai nagusi, iragankortasunak poetarengan sorturiko barne-samindura adieraziz. Aldikotasunaren trataeran (oraina eta lehenaren arteko dialektikan) Machado eta Unamunoren aztar-na zenbait antzeman daiteke. Bestaldetik, fedearen aipamenak, gehienetan, galderazkoak dira. Hauek, nolabait, Orixeren eragina ere isladatzen dute.

Atal honek Luis Mari Mujikaren baliabide literarioen azterketan sakontzea du helburu. Gure olerkariak atxikitzen duen estetika konprometituan, urte batzuk lehenago, *olerki sozialean* erabilia izan zena- ren eragina antzeman daiteke. Mintzo poetikoa herriaren hizkuntza aruntetik baliaturik eraikitzen du, eta *poesia sozialak* literaturan orokorki lagatako hondar garrantzitsu bat, ordurarte erabilitako euskara akademiko eta artifiziala, emeki-emeki ekiditzea izanen da. Olerkigintza hori garaiko Euskal Herri gatazkatsuen lekuko bilakatu- tuko da.

## BALIABIDE LITERARIOEN AZTERKET A HURBILA

(17) "*Asmo hedatuak*". (53. or). Ikus: "*Ederra, zera, ederra*" (58.or), "*Zure soinaren ibaiak*" (63-64.or), "*Noiz esango bai?*" (68.or), "*Martin-en erromantzea*" (77.or).

(18) "*Zure soinaren ibaiak*" (64.or). Esan beharra dago, "uraren" irudia maitasun eta erotismozko alderdiekin lotua izan bada ere, ez dela halako gaiak dituzten olerkietan soilik azaltzen.

Ondorengo orrialdetan Luis Mari Mujikaren idazkera aztertzen saiatuko gara, hots, bere kadentziak, deskribapen teknikak, aspergarritasuna gainditzeko ahapaldierak, elkarrizketak, etenak, bisemi-joe-rak, epitotoen erabilpena, prosopopeiak, errepikak, erritmoak, sinbolismoa eta metafora-mundua.

#### a.- Mugimendua eta etenak.

Gure olerkariak mugimenduaren teknika ongi ezagutu bide du, eta, neurgintzak askotan sortzen duen terrentatik ihesiz, neurri ezberdinezko ahapaldiak sortzera joaten da. Era berean, monotonia gainditzeko, Lizardik egin zuen bezala, baliakizun nabarretara joko du iturri literario ezberdinetatik edanez, beti adierazpen espresibo eta kontzeptual bitxien bidez. Askotan, lehendabiziko ahapaldia ondoren gertatuko denaren aurrezantzu da. Mugimendu mekanikoz hitz egiteaz gain, mugimendu psikologikoz espresatzen da. Balizko gertakizunak erreallitatea baldintzatzen du:

*"Korkoinen putzu beltzean  
ez nuke nahi nik erori,  
arroken gorputz beltz-hotza ur  
gordinak gogor zanpari,  
Zurriolako zubian,  
ah, entzun dira tiro bi,  
orduen segida, esan,  
zergatik zaida latz neri...?"*

"Zurriolako zubian" izeneko olerkiaren lehen ahapaldi honetan argi ikus daiteke aipatutako mugimendu psikologikoa testua olerkian gartuko den bilbearen ibilbidea laburtzera datorrela. Olerkiak aztertu ondoren, mugimenduari dagokionez, hurrengo ondoriotara irits daiteke: batetik, bi motatako mugimenduak atzematen dira (positiboa eta negatiboa); bestetik, ezin da mugimendu baten nagusitasunaz hitz egin, biak, gehienetan, nahasian azaltzen direlako olerkien barnean. Mugimenduak olerkien irakurketa baldintzatzen du, hala-nola, irakurketa azkarra ala geldoa eginez.

Mugimenduaren azkartasuna –eta kasu batzuetan geldotasuna– adierazgarri da esaldi eta bertsoen esanahiera iristeko. Mugimendu positiboaren kasuan aditz nagusiak, izenak eta izen bereziak loturik ager daitezke:

*"...Esan , esan, maitea,  
zergaitik zauden zai,*

(19) "Zurriolako zubian". 1. go ahapaldia (83. or.)

*ah, zu beti nerea  
ta nik zure izan nahi!!!*"(20)

Mugimendu negatiboek izenak ñabartzeko erabiliriko hitzekin bat egiten dute. Era berean, errepikapenek diskurtsoari informazio berri-rik ekartzen ez badiote, haiek sorturiko mugimenduaren balorea negatibo gerta daiteke; maiz, izenlagun eta izenen multzoa handia da:

*" Urak, urak, urak,  
lurrak, lurrak lurrak  
zabal, fíngabe,  
joanaz bete,  
urak, urak, urak  
beltz, sakon, ilunak..."*(21)

Aditzek, gehienetan, mugimendu positiboz betetzen dute olerkia. Baina, askotan, aditza beste aditz baten menpe agertzean, eta mugimendu positiboz hornitua, gerora negatibo bihur daiteke.

*"...Ukitu eta sentitu hire  
esku, behatz, beso, kope,..."* (22)

Adibide honetan aditz nagusiak hurbileko aditzaren gerundiozko funtzioa bereganatzen du. Bi aditz egon arren, ekintza bakarra irudikatzen da; hauek aditz bakar batean laburbil daitezke: "Ukitzen, sentitzen ditut hire esku, behatz, beso, kopet..." . Ondorioz, ordura arte mugimendu positiboaren zamaz betetzen ziren olerkiak kontrako mugimenduz bustitzen dira, olerkiaren irakurketa geldoagoa bilakatu. Dena den, hau ez da aditzekin soilik isladatzen, ze horrelako zer-bait gertatzen da izen arrunt eta bereziekin ere. Gehienetan, izenen metatze-puntuak abiadura ematen du (23). Begi-bistan dago, hala ere, izenez zamatutako beste klausula batzuek ez dutela abiadurarik irudikatzen, gelditasuna baizik. Izenaren erabiltze honen ezberdintasuna adizlagunaren agerpenean datza:

(20) "Noiz esango bai?" (69. or.).

(21) "Udazkenean". (72. or.). "Pena berdetan": "Zergatik, zergatik..." (37. or.). "Bizia dut barnean": "Bizia.../ bizia.../ bizia..."(39. or.). "Gauean": "Seme, seme..."(47.-48. or.). "Zalditik berera": "Ah, altxa, altxa.../...ezin, ezin altxa,..."(51. or.). "Samin sakon berdetan": "...samin sakon berdetan..."(56.-57. or.). "Zure soinaren ibaiak": "Esan.../esan.../esan..."(63. or.). "Odol gaiztoak": "...ezin, ezin eta geldi..."(75. or.). "Martin-en erromantzea": "-Martin, Martin...", " ...hobe, hobe"(78. or.). Hemen aipatutako adibideak aski nabarmenak dira.

(22) "Martin-en erromantzea". (78. or.)

*"...gorroto gaiztoen hortzak  
samin sakon berdetan,  
zapore gaitzen gaziak  
samin sakon berdetan..."(23)*

Adizlagunaz hitz egitean, geldotasuna edo mugimendu negatiboa aipatu dugu, baina esan beharra dago gelditasun horren jatorrian, bazuetan, izenlaguna ere egon daitekela. Gehienetan, izenlaguntzaile-gunea espresioaren aldetik klimax bat lortzera dator. Hortik multzoak: "...beltz, sakon, ilunak..." (72. or.) / "...grix, ihar, zahar, nabar,..." (87. or.) / "...zuri, tente, okrea,..." (93. or.).

Mugimenduarekin amaitzeko, aditz jokatugabekoen presentzia azpimarratu beharrekoa da. Beraiekin erritmoa bortizten da, bertsoen neurketa laburrarekin batera. Lizardik hainbestetan erabilitako *etena-ren* teknika Luis Mari Mujikak gehiegizko konplexutasunik gabe azaltzen dira, parentesiz eta marraz itxitako bertso bereziak ugariak direla bere poemetan. Kasu honetan errutinatik alde egiteko ekoiztutako formulaz hitz egin daiteke. Etenek, gehienetan, barneko gogoe-tak, doloreak eta saminak irudikatzen dituzte. Eta etenak sortzeko ondorengo teknikak erabiltzen ditu, besteen artean:

- Esklamazioak edo oihuak: Errima asko esklamazio batez amaitzen da, dramatikotasuna indartuz. Dramatismo hori irakurlearengan intentsitatez hedatzen da. Baina bertso esklamatiboak harridura hutsetik urrun daude, hots, aurreko adierazpen baten zantzu dira, erre-guak edo saminezko oihuak isladatzeko bide.

*"...Ah, ah, zauria urratzen / azkazalak baleki...!"(24)  
"...ekaitz damugabea / zezen baten gisa...!" (25)*

- Parentesiak: Arimaren egonezinak eta gogoetak irudikatzen dituzte erabiltzen dituzte poetak.

*"...Aih, bihotzari / (ez galde neri!)"(26)  
"...Hain hautsi / (ez dakit, badakit)..."(27)*

- Hiru puntuak: Zalantza edo beldurra sortzeko asmoz, bertsoak amaitu gabe uzten dira.

(23) "Samin sakon berdetan" (57. or)

(24) "Pena berdetan" (37. or.)

(25) "Bizia dut barnean" (41. or.)

(26) "Nire koplari" (42. or)

(27) "Nire koplari" (42. or.)

"...("Zu zera? Ni naiz...")...(28)

"...Zubiko kalean / hamaikak dorrean..."(29)

• Galderak: Ziurgabetasuna, zalantza, ezbaizko gogoia sortzen dute. Galdera estuekin olerkariak ez du erantzunik espero. Bakardadean eta isolamenduan gogoetak saminki egiten ditu. Inork ez ditu galderak ixten, irekiak suertatzen dira, baina erantzunik gabeak.

"...Esan, esan, bada, al den  
eguna gauerd  
esan, oraina zer den:  
gezurra ala egi?..."(28)

Parentesiak etendurazko funtzioa isladatzen du. Baliabide hau behin baino gehiagotan erabiltzen du poetak. Batzuetan, parentesiak lehenengo bertsoetan irudikatutakoaren adierazpen dira:

"...Ageda (birgin ederrak)..."(29)

"...Hernaniko apeza / (erretore txit argia)..."(30)

## b.- Antitesiak

Luis Mari Mujika antitesiez baliatzen da adierazpen-bitartekari bezala (trobadoreen kantutegiek eta petrarkismoak XVI.mende erdialdera ekarrikoko indartuz gurean). Antitesia bidez lortua bi elementuen arteko aurkatzeko indarraren arabera da. Kontrastape-nak ordezkapen linguistiko bat irudikatzen du. Gauzak, ohikoak baino, trinkoagoak bilakatzen dira.

Antitesia helburu ezberdinekin erabiltzen da. Askotan bi aldien aurkakotasuna isladatzen da, hots, *gaua* eta *egunaren* artekoa; adibidez:

"...Nork erantsi dida, esan,  
hutsunearen larria,  
fedegabeko bidean  
nork **gau** bihurtu **argia**...?(31)

Kasu honetan antitesia ahapaldiaren etenean sortzen da. *Argia* egunarekin parekatzen da.

(28) "Zubipean korkoin bi" (45. or.)

(29) "Santa Ageda-ri" (60. or.)

(30) "Zalditik berera" (50. or.)

(31) "Gauetan" (48. or.)

Bi sustantibo beraien artean oposatzen direnean gauza bera gertatzen da izenlagun-elementuekin. Noiz edo behin, antitesi horren erabilerak kontraezarpen sentsoriala sortzen du:

*"...Ur sakon, **lodia**,  
bizia ekaitz **estu**,..." (32)*

"Nire koplari" deituriko olerkian garbiago antitesi-mota honen aipamena:

*"...Laban **lohi**,  
hotz-**zuri**.." (33)*

Lehen komentatu dugun bezala, hizkera soil-existentzial baten bitartez *gaua* eta *egunaren* kontraegoera, *iluntasuna* eta *argitasunaren* kontrakotasuna irudikatzen da ("*...ene **gaua** eta fede-eza / **argi itzalezin** bekida!!*"(34)); orobat, barne sentimenduen oposaketak ("*...**samin** , baina, baita **atsegin***"(35)) eta gizabanakoaren egonezina ("*...zu, zu esperoz zintudan / eta nik **sua itzalia***"(36).

Beste batzuetan, berriz, antitesia ez da bi elementuen arteko aurkakotasunera mugatzen, elementu gehiagoetara hedatzen baino.

*" Begira urren isuria  
egarria hau asetzeko,  
atsegina, bai, ze gizen,  
ze bortitz, ze beraldiko!" (37)*

Sinbolismo hornitu baten ildotik, "oraina" eta "lehena"-ren antitesia zati honetan. Hala ere, ez da poesi-bilduman ematen den bakarra. Hona beste adierazpen zenbait:

*" **Gaur** ilun, **bihar** alegre,  
**etzi** triste, **hurre** nargi" (38)*

Edo:

*"**Atzo** negu zen,  
**gaur** udaberri"(39)*

(32) "Bizia dut barnean" (39. or.)

(33) "Nire koplari" (42. or.)

(34) "Gauean" (49. or.)

(35) "Asmo hedatuak" (52. or.)

(36) "Gauean" (47. or.)

(37) "Zure soinaren hibaiak" (64. or.)

(38) "Inauterietan" (82. or.)

(39) "Atzo negu zen" (66. or.)

Eta olerki berean:

*"...Orainak lehena  
ezin du eutsi,  
lehenak orainaz  
ez du lokarri"(40)*

Aipaturiko azken hiru adibideetan, antitesiaz baino gehiago, denborazko elementuekin lotutako paralelismo soilaz hitz egin beharko litzateke.

Koloreen kontraezarpenak, berriz, hain ugariak ez izan arren, euren aipuak ezinbestekotzat jo behar dira. Ondorengoak aurki daitezke, besteen artean:

*"Ageda (birgin ederrak)  
gonape **urdin**, txano **horia**"(41)*

Barneko sentimenduen garraztasunak hobekien adierazten dituen kontraezarpenak *gozoa* eta *ozpina* elementuen artean sorturikoak dira:

*"(Gozoa zer den, ausaz,  
ozpin hotzak, baleki!)"(42)*

Era berean hurrengo bertsoan:

*"Noiztik ortuko **sagarrak**  
**limoi mikatzak**gutzako"(43)*

Hemen gozoa eta ozpinaren kontzeptuak, zuzenean ez erabiliarren, "ortuko sagarrak" eta "limoi mikatzak" ordezkatzera datoz.

Laburbilduz, antitesi nabarmenenak hurrengo elementuen artean sortzen dira: *gozoa / ozpina, argia / iluna, krudela / laztanka, argia / lainoa, ametsa / egia, gaua / eguna, eguzkia / ilargia, jakin / ez jakin, gezurra / egia, samina / atsegina, oraina / lehena, atzo / gaur.*

#### d.- Hitz-jokoak

Atal honi dagokionez, esan beharra dago beste literaturatan, maiz, ez zaiola kasu handiegirik egiten. Euskal literaturan, beharbada, sor-

(40) "Atzo negu zen" (66. or.)

(41) "Santa Ageda-ri" (60. or.)

(42) "Odol gaiztoak" (75. or.)

(43) "Herio usaina" (91. or.)



kuntza honek hedadura handiagoa izan du. Hitza eta hotsa ongi kalkulaturik azaltzen dira. Erritmoak arlo estetikoan garrantzia hartzen du. Helburu estetikoa edukin datualen aurretik kokatzen da. Irakurleari, beraz, ez zaio ezer objektiborik ematen, sentsazio formal batzuk baino.

Logikaz, oinarrizko olerkietan, mugimendua eta erritmoa ez ezik, nolabaiteko plastizitatea bilatzen da. Mugimendua da nagusi, hitza eta hotsa uztarturik daudelarik:

*"...Hiru tristezi, / ahalegin zazpi..."(44)*

*"...aufa ta trufa, jai!"(45)*

### e.- Hiperbatoia

Poetak baliabide literario honen bidez esaldiaren orden gramatikala aztoratzen du, harridura sortzen irakurlearengan. Sorkuntzari eragin espresiboa lortzera bideraturik dago. Alderantzka sintaktikoak, gehienetan, testuaren ulermena zailagotzen du:

*"...Ah, sexoaren ekaitza  
ze latza nik eta sendo"(46)*

Adibide honetan hiperbatoia eta elipsia batera doaz, bertsoaren ideia nagusia nolabait ezkutatuz. Hala ere, irudi literario hau beti ez da era berean isladatzen. Esan daiteke modu honetan sortutako hiperbatoiek mugimendua eta erritmoarekin bat egiten dutela:

*"...Aita, ama, osaba zaharra  
hil ditu eta emazte..."(47)*

### f.- Oihuak edo esklamazioak

Esklamazioak, bereziki, sentimenduak eta emozioak adierazteko erabiltzen dira. Sentimenduen garratzasuna edo bortiztasuna harridurazko ikurraz eta esakeren tonuagatik atzematzen dira. Horrela, euskal olerkigintza hainbeste bider erabilitako elementuz baliatuko da aspergarritasuna gainditzeko. Hona *Zortziko hautsiak* izeneko olerki-bilduman jasoriko esklamaziozko kasu batzuk:

(44) *"Mendiak kopetean"* (70. or.)

(45) *"Inauterietan"* (81. or.)

(46) *"Zure soinaren hibaia"* (64. or.)

(47) *"Martin-en erromantzea"* (76. or.)

"...Ura odolez gori  
(egunaren larri!)..."(48)

*Martin-en erromantzea* olerkian adibidea argiago ikus daiteke:

"...Putzuan igelak odol  
gorria zurrut, aih, ene!" (49)

Olerki honetan, harriduraz gain, barnetiko sentimenduak azalarazten ditu poetak, mintzo sinboliko garratza erabiliz. *Odola* igelen edari da. Era berean "*Zurriolako zubian*" olerkian. Azken kasuan odola ez da *igelen* edari, *korkoinena* baizik:

"...Zurriolako zubian  
korkoinek "edari gorri"...!"

Orain arte ikusi dugunez, Luis Mari Mujikak esklamazioak sentimenduen alderdi anker eta gordinenak irudikatzeke erabili izan ditu. Dena den, beharrezkotzat jotzen da ikustea ze tematika-motan azalzen diren oihu horiek. Zehatz-mehatz behatu ondoren, badirudi oihuek giro tragikoekin bat egiten dutela. *Zortziko hautsiak* poemabilduma olde tragikoaren aldearekin ukiturik dago, bere osotasunean:

"...Ah, ah, odola!! Metalak  
muinak ireki dizkio..."(50)

Tragikotasun eta dolorez zipriztindutako giro honetan, antitesiarekin batera, ondorengo ere kontsideragarri:

"...Ah, haragian orratzak,  
mailu-kolpe, zaplazteko,  
makil krudela laztanka,  
mantxa moreak...auskalo!"(51)

Batzuetan, bihotzaren garraztasuna isilean ematen da. Aurreko puntuetan, orokorrean, maitasunaren sentimenduak bihozminez beterik aipatzen ziren, eta hala irudikatuta zeuden. Gehienetan, erantzunik gabeko maitasunaz mintzo da poeta:

(48) "*Zubipean korkoin bi*" (45. or.)

(49) "*Martin-en erromantzea*" (78. or.)

(50) "*Herio usaina*" (90. or.)

(51) "*Herio usaina*" (90. or.)

*"...Amorea,  
maitea, zein latza nigan!..."(52)*

Besteetan, olde aski existentzialista baten handitasunean murgiltzen da olerkia:

*"...Bideak herdoil,  
barneak zauri,  
nik dolorea  
betiko iturri...!"(53)*

### **g.- Errepikak**

Betidantik, ikusi izan da errepika mintzo literarioaren oinarritzko funtzio bezala. Errepikak baliabide literario bereziak sortzen dituzte, eta horien artean: aliterazioa, paralelismoa, anafora, anadiplosia, epa-nadiplosia.

Luis Mari Mujikak aliterazioaren bidez, ikusmen eta entzumenezko dinamismoa azkarragotzea bilatzen du, bizitasun adierazkorragoa lortzea:

*"Ederra da, ederra,  
grinazko fruitua gorri,  
xarmanta da maitea  
(plazerezko lokarri...)"(55)*

Kasu honetan, -r- kontsonante dardarkariaren errepikapenak indar handia itsaten dio ahapaldiari. Kontsonante horren attergabeko errepikatzea ez da kasualitate hutsa, ezen beste olerki batzutan ere jazotzen da. Hona hemen beste adibide bat:

*"...Arratseko sei t'erdiak,  
urpean korkoinek irri,  
(nork jarri dio soinean  
iturria gazteari?)..."(56)*

Kera erromantzeatua duten olerkiak, bereziki, errepikaren tratamenduan aski zainduta azaltzen dira, bortiztasun handiagoa beregana-

(52) *"Asmo hedatuak"* (54. or.)

(53) *"Bideak"* (65. or.)

(55) *"Ederra, zera, ederra"* (58. or.)

(56) *"Zurriolako zubian"* (84. or.)

tuz. Zenbaitetan, elementu bera bizpahiru bider errepikaturik isladatzen da bertso berean:

*"...Zein goi, zein galant, zein bortitz..." (57)*

Besteetan, errepikapenezko kateamendu batez, jarraian dauden bi bertsoez hitz egin daiteke. Elementuak azpimarratzeaz gain, olerkiaren mugimendua apalagoa izan daiteke:

*"Urak, urak, urak,  
lurrak, lurrak lurrak..." (58)*

Hala eta guztiz ere, gure poetak gehien erabiltzen duen teknika paralelismoarena da, dudarik gabe. Jakina denez, bere jatorria kantu-tegi zaharretan koka badaiteke ere, Gil Vicente eta Lope de Vega bezalako poeten eskutik landua izan zen. Hurbilago, nahikoa da gogoraztea Alberti, Lorca eta Prados-en poema zenbait. Gure olerkaria, bada, ohiko korrentez baliatzen da, heriotza eta samina gai duten olerkietan, bereziki:

*"Zergatik zergatikdu  
zeru gordinak argi,  
zergatik kutxilo hotzak  
amorea gauari..." (59)*

Teknika bera ondorengo poemetan: *"Bizia dut barnean, / bizia jauzika, / bizia etengabe..."*, *"...Hain larri, / nork dio jarri? / Hain larri..."*, *Maitea, esan, non zeran, / esan, zer den amodio, / esan norentzako duzun..."*, *" Hemen nauzu kutuna, / hemen, hemen ernai,..."*, *"...Borroka nolan jasan / hemen nork daki? / Borroka alferrik...? "*

Dudarik gabe, baliabide honen indarra etengabeko itzulian datza. Esaldia kurtsibaz azaltzen den guztietan, olerkariak aldi horretan gertuaren lagungarritzat eskaintzen du. Errepikapenaren efektua plastikoa da. Elementua, behin eta berriz, asetasuna lortu arte. *Zortziko hautsiak* bilduman, sarritan, heriotzaren ordua arrastiriarekin bat dator. Arratsaldean irudikatzean olerkariak, ekoizketa poetiko berezian, heriotza azaltzea du helburu. Arratsaldeko seiak, adibidez, goiz izan arren, argi-itzalekin barneratzen dira.

(57) "Asmo hedatuak" (54. or.)

(58) "Udazkenean" (72. or.)

(59) "Pena berdetan" (37. or.)

" *Gau hotz-gordina zintzilik  
samin sakon-berdetan...  
Zumeen negar ume-isila  
samin sakon berdetan...*"(60)

Antzeko adibidea atzematen da *Martin-en erromantzea* olerkian. Ahapaldi bakoitzaren amaieran lelo bera irudikatutrik:

"...*Ah, gaua gau deneko oro  
gorriz da ase, ase, ase...  
Zubiko kalean  
hamaikak dorrean...*"(61)

Epanadiplosiaren erabilera eskasa bada ere, testuak, askotan, Lorca-ren "*El romancero gitano*" olerki-bilduma gogora dakarkio irakurleari. Egia esan, gure olerkariaren inspirazio iturriak anitzak izan arren, batzuetan, 27. belaunaldiko olerkarienak aski zuzenak dira:

"...*Berde sakonen berdea  
samin sakon-berdetan...*"(62)

#### h.- Epitetoak eta aditz zenbait

Poeta guztientzat epitetoa, estilo propioa garatzearen, baliabide aparta bilakatzen da. Epitetoaren bidez, edozein elementu, nolakotasunez agerian uzten da, olerkiaren balore estetiko eta mintzo poetikoaren indarra espresio handitara helaraziz.

Olerkaria kolore sinpletako jolasen aurrean sentikor azaltzen da, eta funtzio horrekin aukeratzen ditu izenlagunak:

"...*Nire min-dolorea  
lo berdean dago hozti...*"(63)

Testuinguruaren arabera, epitetoen esparruan kolore guztiek esanahi aproposa bereganatzen dute. Horien aukeraketa ez da kasualitate hutsa olerkariak transmititu nahi izan dituen sentimenduekin dator bat. Atzeman dugun bezala, kolore simple eta hotzak dira Mujikak gehien erabiltzen dituen epitetoak, eta horien artean: *berdea*, *urdina*, *beltza* eta *txuria*. Hauetako asko, memento zehatzetan, bortiztasuna, garratzasuna eta bestelako sentimendu ezkorrak azaltzera zuzendurik daude.

(60) "*Samin sakon berdetan*" (56. or.)

(61) "*Martin-en erromantzea*" (76. or.)

(62) "*Samin sakon berdetan*" (57. or.)

(63) "*Pena berdetan*" (37. or.)

Dena den, esan beharra dago, gehienetan epitetoak metafora-eraketaren osagarri direla:

*"...Lehengo far soil-basatia  
usain beltz-berdetan preso..."*(64)

Zenbaitetan, kolore beroen agerpen positiboa nabaria izan arren, kolore batzuek esanahi konnotatibo negatiboa bereganatzen dute:

*"...Ah, gaua gau deneko oro  
gorri; da ase, ase, ase..."*(65)

Kontutan izan, bestalde, epitetoaren funtzioa betetzen duten kolorez kromatismoa harrotuko den beste atal batean arituko garela, espreski.

Olerki batzutan poetak izenlagun oso zehatzak kontrasteak azpimarratzeko erabiltzen ditu:

*"...Begira, begira, Martin  
itzal gaiztoen ihesle,  
eskutako odol gordinek  
far hotz-mingotsa dagite..."*(66)

Izenlagunen metatzea espresioa indartzera dator; adjektibazioan nolakotasuna dotore eratzen da. Eta metatzea, batzuetan, hirukoitza edo laukoitza izan daiteke, ukitutako gaiaren adierazpena azpimarratuz:

*"...Izterrik bikain,  
beltz, lerdetik hain  
ez dut ikus sekulan!"...*" (67)

Izenlagunen metaketak, sarritan, dinamismo negatiboz beterik ageri badira ere, noizean behin, metatze horiek alderantzizko eragina sortarazten dute, hots, abiaturazko sentsazio positiboa. Kasu berezitan izenlagunak klimax bat lortzeko mailakaturik azaltzen dira, balore dinamikoa atxikiz. Mailaketa horrek goranzko joera du. Hala ere, tristezia bere gain hartzen duen sentimenduen adierazpena datorrenean, beheranzko mailaketa antzematen da, erritmoa motelduz:

*"...Zauritik doakio  
pena soil, berde gazi..."* (68)

(64) "Zure soinaren hibaia" (63. or.)

(65) "Martin-en erromantzea" (76. or.)

(66) "Martin-en erromantzea" (74. or.)

(67) "Etxe baten ertzean" (80. or.)

(68) "Pena berdetan" (37. or.)

"Bizia dut barnean" izeneko olerkian, berriz:

*"...Bizia ekaitz estu,  
haserre, handia..."*

Lizardik egin zuenez, Luis Mari Mujikak ere sustantiboa epitetoen artean biltzen du, eta, noiz edo noiz, izenlaguna eginkizun sustantibatzaillez darabil: "*eEerraren soinera*"(40. or.), "*berde sakonen berdea*" (57. or.).

Epiteto eta aditzen tratamendua hemengo liburukian, aurretiko "*Hitzak ebakitzean*" baino, modu apalagoan ematen da. Hala eta guztiz, "*kutsatua*", "*iraulia*", "*nahasia*", "*pilatua*", "*setatsua*"... bezalako erabilera aproposa isladatzen da bertan. Antzeko tipologia epitetoetan V. Aleixandreengan. (69)

Epitetoen trataeran ugaltasuna da nabari, esan dugunez. Batzuetan, pertsonalizazio-kutsuz ere agertatzen dira ("*Zumeen negar ume-isila*" /56. or.), eta aliteraziozko jokoz ("*Bere bularrak gogor / (kozkor, mos - kor) dira* / 67. or.). Besteetan, berriz, *-er / -en* eta *-ar* kadentziak ez eizik, anadiplosia: " *...Ah, zein plazer, zein eder, zein lerdan ziran, aih!*" (68. or.), "*Arbol...ihar, xahar, nabar...*" (87. or.).

Lehen baiesten genuen epitetoa, batzuetan, hiru kasutara hedatzen zela, baina Mujikaren joera nagusia bi kasutakoa da. Hala izanik ere, epitetoaren erabilera olerki bilduman aski jori eta kultoa da; horregatik, ezinbestekoa egiten da osagarritzko zerrenda eskaintzea: *Berde gordin* (39. or.), *beltz zailak* (39. or.), *bero-goriak* (40. or.), *hotz-zuri* (42. or.), *isil basati* (43. or.), *beltz-eroria* (47. or.), *ilun-zabarrak* (48. or.), *isil-hazia* (50. or.), *hotz-gordinez* (51. or.), *zahar-itsusia* (53. or.), *lodi-beltzak* (54. or.), *harro-gordinak* (56. or.), *hotz-okreak* (59. or.), *beltz-krudelak* (60. or.), *soil-basatia* (63. or.), *beltz-berdetan* (63. or.), *beltz-gazteen* (63. or.), *lerden-maitale* (72. or.), *haserre moreak* (75. or.), *hotz-mingotsa* (77. or.), *beltz-more* (77. or.), *hits-moreak* (81. or.), *beltz-hotza* (83. or.), *gazte-bizkorra* (84. or.), *hotz-berdeen* (87. or.), *asper nagia* (89. or.), *zatar-gorriez* (89. or.), *loti-mantsoak* (94. or.).

### **i.- Konkretizazioak**

Olerkiak, zenbat eta konkretizazio gehiago ukan, hainbat eta bortiztasun adierazkor nagusiagoa du, zehaztasunak giroa intentsifikatu egin ohi baitu. Abstraktua beti ere hotzagoa da. *Zortziko hautsiak* poema-liburuan mintzo poetikoa eszenatoki bati atxikirik ageri da,

(69) "*Cuando se sienten empapadas en la luz fria*" ("*Guitarra o luna*", 454), "*Ese resplandor contagioso (kutsatua) que me queda en las manos*" ("*Ven siempre, ven*" 315), "*Mis venas, y solo tú, cielo agreste (basatia), intocado (ukigabea)*" ("*Al cielo*", 571).

batez ere, une tragikoenetan. Zalantzarik ez dago, 1975. inguruan ETA erakundearen borroka (ia euskal abertzaletasun osoak onartua) frankismoarekin bukatzeko ausardiazko koadroa suertatzen zela (eta euskal olerkariak aurrezantzuzko teknika surrealista harrotzeko profitatzen du). *Txiki* (Manot), *Martin*, *Zurriolako zubia*, *Kurtsaleko zubia*, e. a. pertsonaia eta eszenatoki ezberdinezko lekuko zehatz dira. Konkretizazio horiek zehaztaperen bortitzak dituzte, *Txiki*-ren heriotz latza deskribatzen denean bezala:

*"...Txikik ezpainetan bero,  
hiru zulo ditu, bata  
buruan, bestea alboko  
ertzean, azkenekoa  
bihotz erdian..."*(70)

Enumerazioak edo zenbaketak ere badaude: "*...Entzun dira tiro bi...*" (83. or.), "*...Arratseko sei t'erdia / gazte eroriak agoni...*" (84. or.), "*...kopetean t'ezpainean / bi iturri...*" (90. or.), "*...hamar itur gorri...*" (44. or.). Zehaztapena halako giro ludikoan, orobat, koka daiteke: "*...Ondoan mamu ta zaldi / okreak dagite salto...*" (90. or.), "*...Itzal, mamu, pailaso ta / maskarak. Gaur inauteri...!*" (82. or.). Hala eta guztiz, konkretizazio hauek ez dagozkio errealtateari zuzenezuzenean; sinbolizazioaren bidea erabiltzen dute, baizik, ahalik eta sentimendu kopuru handiena adieraziz. Zenbakiek ez dute kantitatea soilik adierazten sarritan, alderdi psikologikoekin estuki loturik daudelako. *Hiru* zenbakia, adibidez, giza-nortasunaren dinamikan parte hartzen duten elementuekin lotzen da: **Zera,Ni** -a eta **Super ni** -arekin.

Mujikak, konkretizazioen bidez, iruditeria surrealista eta ez-razionala "euskaldun" bihurtu du, irudiek eta joko metaforikoek gure herriaren tragedia agerian lagatzen baitute, bere ardatz eginez. Maitasunezko (eta erotikazko) olerkietan bere mintzoa ez bide dago egoerari hain itsatsia.

Konkretizazio berezienak denbora eta paisajeari loturikoak dira. Denborari dagozkionak heriotzaren orduarekin lotzen dira, maiz:

*"...Goizeko zortzirak dira,  
gizonen kanposainduko  
paretara "Txikirekin",  
errekan barboek malko,  
ilargia tristeziaz,  
oihu bat entzun da: "Al blanco!"..."* (71)

(70) "*Herio usaina*" (91. or.)

(71) "*Herio usaina*" (90. or.)



Paisaiari txertaturikoak, naturaren heriotzarekin lotzen dira, zenbaitetan:

*"...Gure soroetan ez da,  
yadanik, ez ihintz, ez arto,  
artoen ordezt fusilak,  
ah, ah, ze zorigaitzezko...!"(72)*

### **j.- Paisajismoa. Naturaren elementuak**

98-ko. belanaldiaren idazleengan paisajismoaren teknikak garrantzi handia eskuratu zuen. Unamuno, Azorin eta Machadoren eskutik paisajismoaren erabilerak maila gorena ezagutu zuen. Sentimenduen isladapena, gizakiaren barnetik kezka nagusienak paisaiaren bitartez transposiziozko teknika erabiliz irudikatuak izan dira; hala-nola, mesfidantza, malenkonia, herstura, ezintasuna... Horrela, paisaia Mujikarentzat gizakia da, eta sentimendu eta gertaeren bidez paisaia olde sugerentetan eskaintzen da.

Paisaiak aldi tragikoa girotzeko eginbide berezia dauka olerkian, eta maiz, kromatismo gaitzaren kasuan, aurrezantzu modura ahokatzten da arimaren gelatan:

*"...Bi haritzen erdian  
ilargi morea argi..."(73)*

Paisaia, berretsia izan den bezala, egoera animiko-existenzialen kide bihurtzen da. Dena den, paisajismoaren teknika hobeto ikusi ahal izateko, gure olerkariak erabilitako elementu zenbaiten azterketa egitea komenigarri da. Naturaren elementu zenbait, banan-bana, behatuko dugu segidan:

#### **i.1.- Ilargia, eguzkia eta izarrak**

Ilargiaren trataera aski joria da gure olerkariarengan, eta pasarte asko bisemi-kutsuz beteta daude. Behin eta berriro, aurrezantzu modura azalduko da; tragediaren aldi gaitzen adiskide bilakatuko da. *Ilargia*, elementu sinboliko eta animiko bezala, askotan J.R. Jiménez, A. Machado edo García Lorca bezalako olerkigintzan. Herio-erri-tualetan ere ezin da ilargia falta.

(72)"Herio usaina" (91. or.)

(73)"Pena berdetan" (38. or.)

*"...Mendian ilargia  
ezpata bezain larri,  
horra, horra dolorez  
arin doa ta urduri..."(74)*

Ilargiak emakumearen irudia bereganatzen du. Eguzkiaren emazte da, eta biak ezintasunez ezkon nahiean dabilta. Euskal mitologiaren egitatea kontutan hartzen da hemen:

*"Mendiak hopetean  
galant arraultz bi,  
eguzki-ilargi  
biak ezkon nahiean." (75)*

Gaua iristean tragedia gauzatuta azaltzen da:

*"Zu joka, kolpe ta kolpe,  
biana ni ilunbean hilda..."(76)*

Gaueko elementuen bidez, olerkariak mundu fantasmagoriko eta oniriko bat barneratzen du. Isiltasuna da nagusi, eta naturak zapore basatia berreskuratzen du:

*"...Gauaren maindirean  
mamu beltzak mozkorti,  
dantza makabroetan..."(77)*

Bortxakeriazko biktima modura ere agertzen da:

*"...Nork itzali du gaua,  
ilargia puska, hautsi?..." (78)*

Izarrek, gehienetan, mintzo aski deskriptiboz, halako xarma mitologikoa dute:

*"...Izarren ohetatik,  
zezenaren eztena  
nola den ziztagarri..."(79)*

(74) "Pena berdetan" (38. or.)

(75) "Mendiak kopetean" (70. or.)

(76) "Gauan" (48. or.)

(77) "Pena berdetan" (38. or.)

(78) "Pena berdetan" (38. or.)

(79) "Ederra, zera, ederra" (59. or.)

Mujikaren eskutik paisaia beti suspertzen doa. Paisaia gizakia inguratzeko duen kanpotiko osagarria da. Olerkiak naturaren kontzientziaz beterik daude.

### ***i.2.- Ura, ibaiak, errekek eta itsasoa***

*Ura* modu sinboliko batez erabiltzen da, sarritan. Elementuaren alderdi onak eta txarrak irudikatzen dira. Urak paisaia higitzen du, eta, era berean, maitasuna:

*"...Begira uren isuria  
egarri hau asetzeko,  
atsegina, bai, ze gizen,  
ze bortitz, ze beraldiko!..." (80)*

Maitasunaren oldeak adieraziz, berriz:

*"...Maitasun urak biziki  
nigan amil..."(81)*

*Ibaia* gizonaren bizitzarekin konparatzen da klasikoa den metaforizazio baten bidez (bizitza, itsasoan ahokatzeko den ibaia da). *Itsasoa* bizia galtzea da, eta ildo horretatik eremu poetiko berezia sortzen du. Gizona, itsasora daraman bidean, egitate existentziala, emeki-emeki, galtzen doa. Olerkariaren baieztapenak izaera unibertsal, kosmiko, filosofikoa du. Hori da, azken finean, heriotza eta bizitzaren arteko dialektikaren ziklo itxia:

*"...Ahotik, gogotatik  
(nondik al dakida?)  
bizitza hibai antzera  
doakit joria..."(82)*

*"Gizona, hibai luze gisan,  
betiro herio-itsasoruntz doa..."(83)*

Heriotzari buruz eginiko gogoetek egiaztapen metafisiko gorenetera garamatza. Dena den, Mujikaren olerkietan itsasoaren alde hauek jori azaltzen dira.

(80) "Zure soinaren hibaiak" (64. or.)

(81) "Asmo hedatuak" (54. or.)

(82) "Bizia dut barnean" (40. or.)

(83) "Herio-itsasora..." (93. or.)

**i.3.- Lurra, landa, arrokak**

Lurra ama da. Naturaren eremu hedatuagoan, mendia, soroa, basoa eta baratza ere barneratzen ditu poetak. Bertan aldameneko izadiarekiko harremanak isladatuta:

*"...Paisajea urre  
(odolezko oinaze),  
ah, soro, zuhaitz,  
ah, bide, zelai..." (84)*

Kasu zehatz batean "*mediaren*" irudiak urkamendiari erreferentzia egiten dio. Heriotzaren aurrezantzu da, "*itsasoaren*" irudi sinbolikoa-rekin bat egiten duena:

*"...Sagar horien artean  
mendiruntz bi gizonetzko,  
kolore berdeen zigorrez  
itsasoa zein itsaso...!"(85)*

Arrokak ere bere protagonismo du maitasunezko gaia harrotzean. Harrizkoa den amodioaren heriotza isladatu nahi da. Arrokak (hilda dagoenaren sinbolo denez) maitasunezko urari muzin egiten dio:

*"...Maitasunaren urak biziki  
nigan amil,  
olatuak arroketa  
izarrak puskatzen dabiltz..."(86)*

*Izarraren* tratamenduak joera sinbolista du gehienetan. Haritschelhar-ek adierazi zuen bezala, izarra neskatxaren maitasun eskuraezinaren sinbolo da, maiz, gure lirika zaharrean.

"*Zurriolako zubian*" olerkian heriotzaren krudeltasuna adierazten da:

*"...Arroken gorputz beltz-hotza ur  
gordinak gogor zanpari,..."*

**i.4.- Errealismo espaziala**

Errealismoaren barruan denborazkoa ez da ahantzi behar, goiza/arratsa eta eguna/gaua-ren arteko antitesiak –aurreko atal batean baiesten genuenez– aintzakotan harturik. Euskal lirika zaharrean

(84) "*Udazkenean*" (73. or.)

(85) "*Herio usaina*" (88. or.)

(86) "*Asmo hedatuak*" (54. or.)

gaua amodioaren eszenatokia da. Gauzen erritmoa denboraz harrotua dago, eta, horrela, Mujikak aldikotasuna arreta bereziaz uki-tzen du, giza izatearen muina izaki. *Ibaiaren* irudiak denboraren ihesia, eta bere gora-beherak, isladatzen ditu, eta hori ongi profitatzen du gure poetak. Lizardik erabili zuen bezala, *lehena* eta *oraina* kontrajarreraz-ko mutur batzuk dira, eta *lehena* eta *geroa* bestek:

*"...Orainak lehena  
ezin du eutsi,  
lehenak orainaz  
ez du lokarri..."*(87)

#### ***i.5.- Urtesasoiak***

Jakina denez, urtesasoiak naturaren ziklo barruan sartzen dira. Mujikaren adierazpen estetikoan, garrantzi aparta eskuratzen dute, interpretapen animikoaren bitartekari izanik, oro bere olde sakonean pulunpatuz. Eremu zabal batean, urtesasoiek gizakiaren egoera animikoekin bat egiten dute, hainbat iradokizunez. Naturaren mugimenduak efektu berdina kitzikatzeraz datoz –kolore, usain eta fenomeno zenbaiten bidez–:

*"...Udazkena isil  
zaigu etorri,  
(ah, lizarretan  
mila tristezi...!)..."* (88)

Ondorengo kasuan poetak udaberriaren aipamena, modu sinbolikoen bidez sentimendu zenbait adieraziz:

*"...Udaberriak sukarra  
samin sakon-berdetan..."*(89)

Olerki anitz karga bisemiko bikainez horniturik dago. Horrelako zerbait adierazten da "*Atzo negu zen*" poematxoan. Bertan urtesasoien joan-etorria irakurlearen aitzinean kokatzen da. Aski da edozein zertzelada bisemiazko adierazpen bihurtzeko.

(87) "*Atzo negu zen*" (66. or.)

(88) "*Atzo negu zen*" (66. or.)

(89) "*Samin sakon-berdetan*" (56. or.)

**j.6.- Landaretza eta elementu botanikoak**

XVI-XVII. mendetako erromantze eta testuetan, Mujikaren olerki-gintzan bezala, elementu botanikoen aipu sugerenteak ez dira falta. Herri-lirika gehienetan sinbolismo *begetatiboa* aintzakotzat hartua izan da, batik bat, atari sinboliko irrazionaletan. Haien azpian, natura edergarri bezala azaltzen da, askotan. Horien artean aipagarri hurrengoak:

*j.j.1.* Zuhaitzak eta frutak: "...*Bi haritzen erdian / ilargi morea argi...*" (38. or.); "...*Aih, limoiari / gusto hain gazi...*"(42. or.); "...*Zumeen negar ume-isila...*"(56. or.); "...*mahats bilduen mozioak...*" (39. or.); "...*Pinudian aireak...*" (59. or.); "...*Lizarra eta altza kanta -ri...*" (62. or.); "...*(zenbat sagasti!)*..." (66. or.); "...*usaina ta amorea / aranaz nahasi,...*"(67. or.); "...*Sagarraren soinak, limoiaren farrak...*" (72. or.).

*j.j.2.* Lore eta landareak: "...*Nolako dolore!-Jauna, zuretzat nere liliak...*"(61. or.); "...*Maitearen bularrak / (arto eta garia),...*" (67. or.); "...*itsas belarrak gozo / gatz-usainen opariz...*"(75. or.); "...*begia anpolai...*" (79. or.); "...*yadanik, ez ihintz, ez arto...*" (91. or.).

Gure olerkariak, bada, euskal lirika zaharrea erabilitako elementu botanikoak maitasunaren alderdi barnetikoak irudikatzeko profita-tzen ditu, esan dugunez:

*"Maitea, esan , non zeran,  
esan, zer den amodio,  
esan norentzako duzun  
sabelpeko lorea.. (Ixo!)..."* (90)

**k.- Kromatismoa**

Kromatismoa aldi animiko tragikoen zerbitzuan azaltzen da, eta oparotasunez *Zortziko hautsiak* bilduman. Gehienetan, egoera existentzialei lotu arren, ingenuismozko keraz zehaztapen hutsez tindaturiko elementuak badaude. Kolore aipatuak *gorria, beltza, berdea, zuria* eta *horia* dira.

**k.1. Zuria**

Larruarekin lotzen den kolorea da, eta gaztelaniar lirikan, anitzetan, agertzen da. Dena den, gure olerkariak maiz zuria ilargiaren argiarekin parekatzen du -eta kolore beltzari edo ilunari kontrajartzen-, eta zoriona eta atsekabea, alaitasuna eta sufrimenduaren arteko ezberdintasunak, argi-itzaletzeko jolasean, estetika poetiko baten mailan garatzen ditu:

(90)"Zure soinaren hibaiaik" (63. or.)

"...Zergatik, zergatik, ba,  
**ilundia ez da argi...**"(91)

### **k.2. Beltza**

Kolore beltza tragikotasuna eta giza izatearen alderdi bortitzenak isladatzeko erabilia izan da:

"...Zain **beltzetan** datoz  
ur bero goriak..." (92)

### **k.3. Gorria eta urre kolorea.**

Gorria arratsarekin lotzen da, hots, heriotzaren ordua edo tenorea-ekin, eta ñabardura ezberdinak atxikitzen ditu une garratzenak irudikatzen. Zenbaitetan, *urre* kolorearekin bat dator:

"...Paisajea **urre**  
(**odolezko** oinaze),  
ah, soro, zuhaitz,  
ah, bide zelai,  
zauriak ere ez, ez,  
**gorriak** hainbeste...!"(93)

Kasu honetan paisajismo kromatikoaz hitz egin daiteke, hots, koloreak paisaiari loturiko modu sinboliko batez. Batzuetan, kolore gorria erotismozko gaiari itsatsia ere atzeman daiteke. Somatismoaren arloan, berriz, gorria ezpainei datxekie:

"Ederra da, ederra,  
grinazko fruta gorri..."(94)

### **k.4. Berdea**

Mujikarentzat kolore berdea heriotzaren tindagai biketsu da. Olerkia inguratzen duten elementu guztiak, gizakia hiltzorian berdearen kutsu sinbolikoz zikitzen doa, heriotzaren aurrezantzu izaki. Horrelako zerbait harrotu du gure olerkariak "*Herio usaina*" olerkian, koloreari zama bisemiko aproposa atxikiz. Batetik, goardia zibilen janzkera ñabartzen da; bestetik, janzkera horien koloreak heriotzaren etorrera irudikatzen du:

(91) "*Pena berdetan*" (37. or.)

(92) "*Bizia dut barnean*" (40. or.)

(93) "*Udazkenean*" (73. or.)

(94) "*Ederra, zera, ederra*" (58. or.)

*"Arratsak asper nagia,  
ironia metalezko,  
sagar horien artean  
mendiruntz bi gizonetzko,  
kolore berdeen zigorrez  
itsasoa zein itsaso...!"*

### **k.5. Morea**

Ez da edergarri modura azaltzen morea, beltzarekin batera, sufri-  
mendu eta saminarene adierazgarri da. Momentu latzenak morez tin-  
daturik agertzen dira. Honen adibidea "*Odol gaiztoak*" olerkian, bes-  
teen artean:

*"...Hain haserre moreak  
zergatik gugan habi,  
amoro honen gurdia  
ezin, ezin da geldi...!"*

Eta botanikaren arloari atxikita, Santa Agedari eskainitako olerkia:

*"...Nolako dolore! -"Jauna,  
zuretzat nere liliak..." (61. or.)*

### **k.6. Kolore konposatuak**

Kolore konposatuetan, sarrienik, hauexek: "*...Usain beltz-berdetan  
preso...*" (63. or.), "*...odol gazitan beltz-more...*" (77. or.).

## **I. Sinestesiak**

Sinestesiak sentimen ezberdinen nahasketatik sortzen dira: ikusme-  
nezko, ukimenezko, entzumenezko, usaimenezko eta dastamenezkoak  
izaki. Gorputz-sentimenetatik datozen sentsazioak elkartzen dituzte,  
eta metaforekin estuki erlazionatzen dira. Zenbait kasutan, metaforaz  
soilik hitz egin daiteke.

Sinestesiak zentzu-desplazamendua suposatzen du, plano ezberdi-  
netako metaketa; adibidez, entzumenetik ikusmenera ("*el débil trino  
amarillo del canario*" García Lorcarengan), edo ikusmenetik ukime-  
nera ("*ala dut odola begietara?*" Lizardirengan), aldakuntza eman  
daiteke (95). Sinbolismo modernoaren esparruan sinestesiako joko  
poetiko hauek Mujikaren mintz estetikoaren aberastera datoz. Objektuen

(95) Luis Mari Mujikak, "*Mirande-ren poesigintza II*" izeneko liburuan, metaforazko  
gainezkarketaz hitz egitean, sinestesiari aipu berezia ematen dio (69. or.)



artean lotura harrigarriak eraikitzen ditu poetak, pentsa ezinezko ñabardurak eta posibilitateak bereganatuz. Entzumenezkoa ikusmenezko bilakatzeaz gain, ikusmenezkoa entzumenezko bihur daiteke, sentimen horiekin sorturiko sentsazioen gainezarketaz mota guztitako elkarketak garatuz.

*Zortziko hautsiak* olerki-bilduman sinestesien garapena, oparoa ez ezik, nabarra da, zeren hiru kasutako sinestesiak, eta zenbaitetan lau-koak ere, ez dira falta. Mujikaren olerkigintzan, sentsazioen transposizioari dagokionez, origiltasunak ez du etenik ezagutzen. Hona bere bilduman aberastasun sinestesikoen froga bat:

### **1.1. *Ikusmena / entzumena, entzumena / ikusmena:***

"...Kriminal izu, iharrek itzaletan irrintzi..." (38. or.), "...hitzak eta begiak / ederraren soinera..." (40. or.), "...ekaitza dut, ilunbea, / metal haserrean nahasi..." (47. or.), "...Zu joka, kolpe ta kolpe, / baina ni ilunbean hilda..." (48. or.), "...herrimin isil-hazia..." (50. or.), "...pol-boraren far gorria..." (51. or.), "...(metalezko garraisia)..." (51. or.), "...negar ume-isila..." (56. or.), "...odolaren kolpea..." (58. or.), "...Sagarraren soinak, / limoiaren farrak..." (72 or.), "...biraoz pitzatu..." (75. or.), "...lizar hotzak negar berde..." (78. or.), "...begiek far berdetan..." (79. or.), "...bularrek far berdetan..." (79. or.), "itzal zoro bat, aire isil..." (82. or.), "...azkazalek eta hortzek / haragi hortan garraisi..." (85. or.), "Marmolezko algaretan / mamu beltzen irudiak..." (86. or.), "...kutxilo beltzen ekaitzak / karraska, izua, birao..." (89. or.). Antzeko metafora sinestesikoak García Lorcaren olerkigintzan: "*Voz aceitunada*" ("Odas"), "*fuego fatuo de gritos*" ("Poema del cante jondo").

### **1.2. *Ikusmena / ukimena, ukimena / ikusmena:***

"...Kutxilo hotzak..." (37. or.), "...lo berdean dago hozti..." (37. or.), "...ur bero-goria..." (40. or.), "...laban lohi, / hotz-zuri..." (42. or.), "...Ura odolez gori..." (45. or.), "...begiok hortz gogor dira..." (50. or.), "...odol erre..." (50. or.), "...Izar hotzen eurijasaz..." (53. or.), "...zure suak erre nau..." (59. or.), "...malko hotz-okreak..." (59. or.), "...altzairuzko hortz beltz-krudelak..." (60. or.), "...nolako hibai hotz, luze..." (67.or.), "...arroken gorputz beltz-hotza..." (83. or.), "...Esne-kolore lodia..." (86. or.), "...Pinu hotz-berdeen..." (87. or.).

### **1.3. *Ikusmena / usaimena, usaimena / ikusmena:***

"...Metal gaiztoen usaina..." (60. or.), "...usain beltz-berdetan preso" (63. or.).

**1.4. Dastamena / ikusmena, ikusmena / dastamena:**

Lorcarengan "*Dulces nieblas*" ("Llanto por Ign. Sánchez Mejía"), "*Agrio verde*" ("Romancero gitano"). Mujikarengan "*Berde gordin*" (39. or.), "...gerraren odol gazia..." (50. or.), "...ah, ur lodi-beltzak neri" (54. or.), "...Arbolak odolak osoro gozoak" (73. or.), "...odol gordin..." (75. or.), "odol gazitan beltz-more" (77.or), "...edari gorri..." (85. or.).

**1.5. Entzumena / dastamena:**

"...Zazpi kopla gazi..." (44. or.).

**16. Ukimena / dastamena, dastamena / ukimena:**

"...Bi zurrut hotz..." (44. or.), "gau hotz-gordina zintzilik..." (56. or.), "...bere begia kristal / hotz-gordin..." (58. or.), "...ozpin hotzak..." (75. or.).

**1.5. Entzumena / ikusmena / ukimena:**

Lorcarengan "*risa amarilla y dura*" ("Canciones").

Mujikarengan "*Polboraren far gorria*" (51. or.), "...ardo gogorren zarata..." (53. or.), "*Eusko gudariak*" kanta / *Txikik ezpainetan bero*" (91. or.).

**1.9. Hiru kasu eta gehiagoko sinestesiak:**

"...Ikus kristal hotz-gordinez..." (ikusmena / ukimena / dastamena / 51. or.), "...Su bizkorren ekaitzean..." (ikusmena / ikusmena / entzumena / 54. or.), "...usain latz-berde-gazi" (usaimena / ukimena / ikusmena / dastamena / 59. or.), "bere gorputz-usaina / bai latz, bai gordin" / 77. or.) (ukimena / usaimena / ukimena / / dastamena), "*Azufre gaitz-haserreak / su gordinetan garraisi*" (usaimena / / dastamena / ikusmena / entzumena / 84. or.), "...horra paraje beltzean hotz ta alar-gun irrintzia..." / 87 or.) (ikusmena / ukimena / entzumena).

Sasi-sinestesietan, berriz, elementu moral, animiko eta bestelako kontzeptu abstraktuei zentzu kualifikatiboak egotzen zaizkie, baina bi puntu erreferentzialak ez dira soin-sentimen desberdinez osaturik egoten. Anitzetan, sinestesia baino gehiago metafora hutsez hitz egin beharko litzateke.

**m. Konparaketak**

Konparaketak anitzak direnez, Mujikak nahiago izaten du metaforizazioa lantzea mintzo estetikoaren jorraztekoan, ausaz, bere anbiguitateak mintzoa oztopatzen diolako. Dena den, edozein objektu, pertsona,

ekintza edo egoera erkaketan jartzen du. Konparaketen arloan askotariko formulak:

**m.1. Likidoa / animaliak:**

"Biziaren ardoa.../ zezen baten gisan" (41. or.).

**m.2. Elementu moralak / elementu somatikoak:**

"Grin hauek hortzak bailiran" (64. or.).

**m.3. Elementu existentzialak / likidoa:**

"Ah, herioa, herioa (hibai gisa)"(94. or.)

**m.4. Elementu animikoa / animaleak:**

"Gogoen haserreak / zezenak bailiran!"(40. or.)

Hona beste kasu berezi batzuk: "Mendian ilargia / ezpata bezain larri" (38. or.), "Bizian etengabe, iturri bat gisa" (39. or.), "...mailuen hozka gisa / halan nik zauria" (40. or.), "Zubipean korkoin bi / kutxiloa iduri" (44. or.), "(Santa Krutz) basurde bizkorra gisan"(50. or.), "Mailuen hozka gisa / halan nik zauria" (40. or.), "Lizarpean gazta bailitz / ilargiaren erdia" (51. or.), "Bi kristal gordin bezala / goi metalak / haragi hontan sartzen..." (52. or.), "Grin hauek (hortzak bailiran) / minezko dira bidrio" (64. or.), "Begia anpolai / bularrek usain, / soina sagar bailitzan" (79.or.).

**n. Pertsonifikazioak eta dinamizazioak**

Olerkietan azaltzen diren pertsonifikazioak alde askotatik har daitezke:

**n.1. Elementu begetiboen pertsonifikazioa eta dinamizazioa**

Landare eta zuhaitzei pertsonen berezotasunak egotzen zaizkie. Landareak gizakien sentimenduak izatera irits daitezke. Adibidez, tristezia sentitzeko eta abesteko gai dira: "Mila lore.../ tristeziaz belauniko" (91. or.), "Lizarra eta altza kantari / mementoan dira hasiak" (62. or.).

**n.2. Metal eta izen objetibalen dinamizazioa**

Metalek etsaiaren rola jokatzen dute. Bortiztasuna eta garraztasuna haien eskutik datoz: "Bidetan labanak zutik" (74.- 75. or.), "Metal haserren nahasia" (67. or.), "Balaren zaplaztekoa" (84. or.).

**n.3. Irudi somatikoaren dinamizazioa**

"Azkazalek eta hortzek / haragi hortan garraisi" (85. or.)

**n.4. Balio moralen dinamizazio somatiko**

"Gorroto gaiztoen hortzak" (57. or.)

**n.5. Egoeren dinamizazio animikoa**

"Ordu hauen nekea" (38. or.).

**ñ. Deshumanizazioa**

Gizakiei, batzuetan, landare, animalia eta bizigabeen berezkotasunak erantsi ahal izaten zaizkie. Modu oparoan gertatu ez arren, pasarte zenbaiten aipua ezinbestekoa da Mujikaren baliabide literarioen ikuspegi zabala edukitzeko. "*Soin horren putzua / su suminez kixka - li!*" (59. or.), "*Gizona, hibai luze gisan*" (93. or.), "*Non da soin horren basoa?*" (54. or.).

Hona beste kasu zenbait:

"*Gal nadin / nere gelatan*" (48. or.)

"*Gorde, gorde / zure hesia / zabalik*" (54. or.). Adibide honetan hesiak gorpuzki baten esanahia eskuratzeko du. Teknika honen bitartez poetak errealitateak, eta forma bizidunetatik, ihes egiten du.

**o. Erotismoa. Sentsualismoa**

Olerki bilduma honetan erotismoaren garrantzia nabarmena da, eta testuen aldetik oparo eta originala da. Erabilitako irudi estetikoetan sinbologia *surrealista* argitan geratzen da, Mujikaren poetikari-modernitatearen aldetik- balio aparta egotziz. Aipu somatikoaren bidez emaztekiaren edertasuna goraiatzeko da. Bere soinaren zati aipatuak hurrengoak dira: *ezpainak, gerria, larrua, aurpegia, bularrak, ile - adatsa, hortzak, begiak, eskuak, oinak, izterrak, besoak...* Hemengo pasarte askok sinbolismo begetatiboarekin bat egiten du. "*Asmo heda - tuak*" olerkian, adibidez, Nerudaren eragina antzeman bat da, *ardoa - ren* metaforizazioaren garapena grina sexualaren esparruan eskainiz: "*Ardo gogorren zarata / hemen da amil, asmo ta grinak / (grin bizko - rrak)*".

Sinestesiak, bere aldetik, sentsualitateari bortiztasuna egoztera etor daitezke: "*Ardo beltz gaztea*", "*Usain beltz-berdea*", "*Zure bularrari / farrak nork jarri dizkio?*".

Sinbolo *falikoa* isladatzen da hurrengoan:

"*Samin zait labana, amore  
azkengabe,*

*samin, baina baita atsegin!*"(52. or.)

*Labana* adierazpen falikoaz ulertzen da.

Sentsualismoa, *ardoaren* ardatz metaforikotik, isladatuta ondorengoan:

*"Ardozko desiretan  
zutaz asean naiz"* (68. or.)

Aipamen somatikoen bitartez, berriz:

*"Zentzunek hozka ta hozka  
zure izter, bular, besoa..."* (63. or.)

Nerudaren mundu sinbolikoan ez dira falta *ardoa*, *gerria*, *aldaka*, *hazia*, *esperma* gisakoak: "*Te rompieron el sexo de granada*" ("Canto general, III " 42), "*Empapado en esperma de tu especie*" ("Canto general, VI" , 17).

Kontutan hartzekoa da emakumeari buruzko sentsualismoa urrutikoa dela, nolabait, maitasunaren tratamendua, maiz, kanpotikoa izaki. Emaztekoa objektu nabaria bada ere, anitzetan, ametszko amodioaz batez ari da mintzo poetikoa; Mujikaren iruditeria sentsual eta erotikoa frankismoak bere garaian ezarritako giro hertsia saihestu gura du, sexuari euskal literatura tradizionalan egotziriko esparru itxia zabaldu nahian. Bestalde, ukazina da amodioak baduela trataera lirikoa bertan, beti naturaren elementuetatik hurbil. Ondoren, erabilitako elementuen zerrendaketa egingen dugu:

### ***o.I. Begiak***

Maitearen begiak ederrak dira. Begien koloretan, noizbehin, ñabar-durak ager daitezke.

*"...Ah, ah, nere enearen  
begi, izter, gerriak..."* (67. or.)

Hurrengo bertsoan neskatxaren begia *anpolaiarekin* parekatzen da, ohiko sinbolismo botanikoa harrotuz:

*"Aranak iledian,  
begia anpolai..."* (79. or.)

Tratamendu bera R.M. Azkuek jasoriko "*Ikusi nuanean*" ("Cancionero II", 697. or.) kantuan: "*Ikusi nuanean nik zure begia / iruditu zitzaidan, maitea, anpolai gorria*".

**o.2. Gerria**

Emaztekiaren gerria askotan garatu da gure literaturan. *Gerria* feminitatearen ukaezinezko elementu bilakatzen da, bertso anitzetan. Batzuetan, olerkia zama bisemikoa atxikiz ageri da:

*"...Neskak bularrak zabal,  
gerri, izter, beso, azal,  
denak eman nahi..."* (80. or.)

**o.3. Bularra**

Kasu honetan, sentsualismo ausartago batez mintzatu bide da. Kera zabarez ere uki daiteke alderdi hau. Esparru erotiko hau, batzuetan, metaforismoak paisajismoan profitatzen dituen elementuekin nahasturik dator.

Santa Agedaren martiritza harrotzean, zehazki, birjinaren bularrei bertso gozoak ekoizten dizkio poetak:

*"...Arratsak ezin du esti  
diti bi horien zauria...  
Aih, aih, borreroak  
mozten dizkio bulartxo biak..."* (61. or.)

Pasarte poetikoak, oraindik, sugerigarriagoak bilakatzen dira elementu botanikoak sartzen dituenan:

*"...Soinekoa ken ezazu,  
diti en lore estalia  
(hain gozoz, eder, xarmanta,  
inortxok ez ikusia)..."* (61. or.)

Ñabardura sentsual berezia ondorengoak ere:

*"...Maitearen bularrak  
(arto eta garia),  
bere gorputz-usaina  
bai latz, bai gordina..."* (67. or.)

Zentzu deskriptiboan, baina enfasiz, hurrengoak:

*"...Ah zure bular biak  
altu dira ta ugari,  
erraiaren beroan  
haziak ezin eutsi..."*

**o.4.- Iztarrak**

Emaztekiaren birjinitatearen gordeleku modura (*oihanaren* sinbolopean) irudikatuta ager daitezke:

"...Ah, bere iztarren oihan..." (80. or.)

**o.5.- Ezpainak**

Zenbaitetan, elementu somatiko huts bezala -eta pertsonifikaturik- azaltzen dira:

"...Ezpain amorratuen grinak" (56. or.)

Besteetan, atari sinboliko ez-logikoen esparruan metaforazko jokoak eginez daude:

"Ederra, zera, ederra  
grinazko fruta gorri..." (58. or.)

**o.6.- Ardoa**

Zalantzarik ez dago *ardoaren* iruditeria klasikoa dela. Ardoa sexuaren irritsa eta plazerarekin lotua izan da sinbolo bezala, eta erabat iradokitzailea da erotismoaren barruan:

"...Ardozko desiretan  
zutaz ase naiz..." (68. or.)

*Ardoak* giro erotikoa isladatzen badu ere, arimako minaren sendagai izan daiteke. Honela "*Martin-en erromantzea*" olerkian (96.):

"...Edan, gustatu paitarra,  
ardoaren hatsez ase,  
dena odol gustoko hiri,  
odol gaiztoen zapora..." (77. or.)

**o.7.- Pinudia**

Leku aproposa izan da beti herri-ohitura batzutan joko sexualetan aritzeko, ezkutatoki bezala:

"...Pinudian aireak  
usain latz-berde-gazi,

(96) "*Miranderen poesigintza I*", op. c. (Edit. Haranburu, s.a.), 184. or: "Ardoak tratamendu berezia du Miranderen erotikan. Baudelaire eta Verlaine-engan ere badago tratamendu hori. Mirande ardoaz askotan mintzo zaigu. Beste batzutan arimaren doluen sedagarri da alkohola...".

*gauak malko hotz-okreak  
izarren ohetatik,...*" (59. or.)

## **p.- Metaforismoa**

*Zortziko hautsiak* olerki-bilduman metaforismoa, goian berretsi dugunez, surrealismoaren ildotik doa nagusiki, bai erotismoa eta bai Euskal Herriaren borroka politiko bortitza irudikatzeko orduan. Ohiko baliabide erretoriko hau tropo-mota berezitzat kontsidera daiteke. Bere bitartez errealitatearen elementu ezberdinek esanahi berezia eskuratzen dute, emozio anitzak sortaraziz. Mujikaren olerkigintzan -espresio literarioaren aldetik- ukaezinezko elementu bezala azaltzen dira metaforak.

### **p.1. Metafora kromatikoak**

Kolorea sustantibo zehatz batek emanda:

*"...Ura odolez gori  
(egunaren larri!)..."*(45. or.)

Kolorea sustantibatuta:

*"Zure soinaren kobrea  
ardo beltz-gazteen gorrotoz..."* (63. or.)

Koloreak bi esanahi eman dizkio metaforari hurrengo bertsoan: batetik, udazkenaren kolorea naturan; eta, bestetik, gizakiaren egoera animikoa:

*"Bideak herdoil,  
mendiek hori,  
gauzen hibaia  
ze arin dari..."* (65. or.)

Kolore beltzaren erabilera efektu zirraragarria da, eta poetak zerbait garrantzaren aurrezantzu bezala darabil:

*"...Bihotz beltzak gordeta  
hiru tristezi,  
ahalegin zazpi..."* (70. or.)

Frutek metafora bereziak eraikitzen dituzte:

*"...Sagarraren soinak,  
limoiaren farrak..."* (72. or.)



Kolorea heriotzaren sinbolo modura:

*"...Berde sakonen berdea  
samin sakon berdetan..."* (57. or.)

Kolorea barruko metafora estaliz:

*"...Zergatik moretu zera,  
tristatu, ene argia..."* (51. or.)

Kolorea urtesaso bati atxikita:

*"...Paisajea urre  
(odolezko oinaze)..."* (73. or.)

Ondorengo adibidean elementu zehatz bat ingurukoa tindatuz ageri da. Hainbat bider heriotzaren sinbolotzat emaniko *odola*-ren irudiak gorriz koloreztatzen du oro, giro tragikoa indartuz. "*Zubipean korkoin bi*" olerkitik hurrengo pasarte:

*"...Euskal korkoina, horra,  
uretan preso... Min,  
odoletan hordi da,  
ah, libre baledi!..."* (44. or.)

Kolore taxugabeak azaltzen dira "*Zoroaren egia*" olerkian, eromenaren gaiarekin loturik:

*"...Arbol grix, ihar, xahar, nabar,  
beltzak egi bihur dira..."* (87. or.)

Ikusi dugunez, kromatismoarekin atxikiriko teknika metaforikoa aberatsa da gure poetarengan. Metaforismo kromatikoa estuki erlazionatzen da paisaiarekin, bien arteko erlazio bisemikoak areagotuz. Metaforizazioa ere arimaren barnekoitasuna isladatzera dator. Kolore berezi batek –pasarte poetikoan jarrita- inguruko guztia zama bisemiko-kutsa dezake, esanguratsu bilakatuz.

## ***p.2. Metafora begetatiboak***

Irudi begetatiboetan, lehenik, arbolak aipagarri, eta denetan nagusi *lizarra*. Zuhaitz hori, olerkariari, gogokoena zaio, zama bisemiko handiena egozten diolako:

*"Lizarpeangazta bailitz  
ilargiaren erdia"* (51. or.)

*"Lizar hotzak negar berde"* (78. or.).

Dena den, *haltza lizarra*-rekin batera azal daiteke. Bi zuhaitz-mota hauek, ibaien ertzetakoak, hots, leku hezetakoak dira. Hezetasun hori, anitzetan, tristeziarekin lotzen du olerkariak. Hurrengo pasarteetan *lizarra* eta *haltza* Santa Agedaren martiritzaren lekuko dira, eta eresi batean jartzen dira:

"...*Lizarra* ta *haltza* kantari  
mementoan dira hasiak,  
horra, horra ze mirari  
ilun beltzean argia..." (62. or.)

Zenbaitetan, *pinua* azaltzen bada ere, gure olerkariak gehienetan higuina dio euskal paisaian kanpotar eta exotikotzat daukan zuhaitz horri.

"...*Pinudian* aireak  
usain latz-berde-gazi,  
gauak malko hotz-okreak  
izarren ohetatik..." (59. or.)

Barnetiko sentimendu garratzenei lotua ere ager daiteke. "*Zoroaren egia*" deituriko olerkian mindura eta tristeziarekin itsasten da:

"...*Pinu* hotz-berdeen artean  
mindura eta tristezia  
(nork entzun du, nork entzun du  
zoroaren garraisia?)..." (87. or.)

*Haritza*, bere aldetik, "*Pena berdetan*" olerkian egoera bisemiko berezi baten lekuko bezala:

"...Bi *haritzen* erdian  
ilargi morea argi..." (38. or.)

Landaretan, *sagarra*, *limoia*, *lorea*, *garia*, *artoa*, *arana*, *mahatsa* bezalakoak pasarte poetikoetan. Gehienak amodioaren gaiari lotuta: "*Aran beltza dardarrez / adarrean ernai*" (68. or.), "*Maitearen bularrak / (artoa eta garia)*" (67. or.), "*Mahats bilduen mozioak*" (57. or.). *Mahatsaren* kasuan, *-ardoari* atxikita beti-erotismozko giroa nabarmentzen, plazera irudikatuz. Hala ere, *mahatsaren* irudia ez da *aranarena* bezain landua, nahiz eta beti ez erotismoaren esparruan. Gure olerkariaren testuetan bere presentzia oparoa da:

"...*Usaina* ta amoreta  
*aranaz* nahasia,

*maiteak amorea  
desiraz hautsia..." (67. or.)*

Umotasun handiz *sagarra* ere azaltzen da eta *limoiaren* kontrajarre-  
ran. *Sagarra* bizitzaren une gozoak -eta limoia garratzak- girotzera  
dator:

*"...Noiztik ortuko **sagarrak**  
limoi mikatzak gutzako...?" (91. or.)*

Beste aipu jorienetarikoa *lorearena* da -beste zehaztapenik gabe-.  
Loreak isladatzen duen giro sentzuala misterioz beteriko mintzo  
zehaztugabeen ematen da. Hala ere, kera fisiko hutsezko aipamenak  
ez dira falta. Ondorengo poeman loreak "sexua" adierazten du:

*"Maitea, esan, non zeran,  
esan, zer den amodio,  
esan norentzako duzun  
sabelpeko lorea.." (63. or.)*

Adierazpen erotiko bereko giroan garia eta artoaren irudiak:

*"Maitearen bularrak  
(arto ta garia)..." (67. or.)*

"*Ederra, zera, ederra*" izeneko olerkian ere bularren tratamendua  
giro begetatibo batean.

*"...Ah, zure bular biak  
altu eta ugari dira..." (59. or.)*

Bi pasarten tratamendua konparatzen bada antzekotasuna nabaria  
da. *Altu* eta *ugari* epitetoak arlo begetatibotik jaso dira lehenik, hots,  
*arto* eta *garien* behakuntzatik.

### ***p.3. Metafora metonimikoak***

García Lorcak egin zuen bezala, Mujikak, zenbaitetan, metaforiza-  
zio surrealista darabil, aintzakotzat harturik bi ideia hurbilekoan sin-  
bolo-ildoan.

*"...Kutxilo beltzen ekaitzak  
karraska, izua, birao" (89. or.)*

Labana sinbolo faliko bezala azaltzen da, maiz. Hemen, berriz, etsaiaren presentzia isladatzen du.

#### **p.4. Metafora somatikoak**

Irudi somatikoek, gehienetan, aldi bortitzei datxekie: "...*Puñal-hortzaren zaratak...*" (56. or.), "*fusilaren hortzak eten / ebaki du gaztea, hautsi*" (83. or.), "*Altzairuzko hortz beltz-krudelak*" (60.or.). *Bularrak, soina, azkazalak, haginak, hortzak* dira alde somatiko aipatuena.

#### **p.5. Animaliez osaturiko metaforak**

Zezena eta basurdea euskal animalien giroan barneratzen dira, ez, ordea, tigrea eta lehoia, azken bi hauek guztiz exotikoak direlarik. Hona adibide bat: "*Lehoi zatar, tigre beltzak / zartaka dabiltz gure herri*" (85. or.). Kasu honetan lehoiak eta tigreak euskaldunen etsaiak irudikatzen dituzte, Euskal Herria mehatxupearan bizi dela irudikatzen da. Herriaren arerioak piztia basati eta atzerrikoak dira: "*Ondoan mamu eta zaldi / okreak dagite salto*" (90. or.).

#### **p.5. Tresnak, metalak eta beste elementuekin eratutako metaforak**

Hauetan objektuak (*mailuak, fusilak, labana, kutxiloa, ezpata, aiz-kora, puñala, itagia, bala...*), metalak (*burdina, kobrea, altzairua, zilarra, urrea*) eta beste elementu gaitz zenbait (*sufrea, hautsa, hezu-rrak, ozpina, bidrioa, gatza...*) nabarmen. Objektuei dagokienez, metafora metonimikoez hitz egiten genuen bezala, sinbolo falikoa ere kontsideratzekoa da. Hemengo elementu anitz heriotza eta hilketaren garraztasunarekin loturik dago, etsaien presentziaren sinbolo dira, bizitzari etena emango dioten bitartekoak. Tratamendu metaforiko bera García Lorcaren olerkigintzan *Poeta en Nueva York* deritzon poemarioan ("*...¿Qué puñalitos sueña en su vigilia!; y los puñales diminutos...*").

"...*Gauak fusil usaina du,  
giroa heriotzezko...*" (88. or.)

Bertso honetan fusila heriotza ordezkatzeko duen elementua da:

Aberastasan sinbolikoagatik, beste hau ere aipagarri:

"*Nork burdina nahastu du  
haragian krudelki...*" (74. or.)

Elementu somatikoaren bidetik, berriz:

"*Altzairuzko hortz beltz-krudelak*" (60. or.)

Eta beste elementu batzuekin:

*"Hautsa ta grin ozpinez / barne hauek ze nahasia!"* (50. or.).

Azken honetan *gatzaren* sinbologia. Batzuetan, bizitzaren bizigarritzat azaltzen da; besteetan, izpiritu suntsitzaile, korrosibo modura:

*"...Gaurtik gerora **ozpina**,  
gatza ta malenkonia  
hozkatu beharrean da  
(egitan!) Euskal Herria..."* (51. or.)

*Kristala*, bere aldetik, gizakiaren barnetiko sentimenduen elementu hautsezin, gotor modura kontsidera daiteke:

*"...Bere begia kristal  
hotz-gordin (ezinautsi)..."*

Zenbaitetan, *labana* edo *kutxiloa* arrainarekin identifikatzen da haren sinbolismoa profaturik, eta amodio gaitz eta heriotzezko aldarreetan ere ager daiteke:

*"...Gaztearen odol gaitza  
**korkoinentz**at trago larri,  
odol horren iturria  
libertatearen hazi..."* (85. or.)

Garbi dago metaforismo guzti hau, irrazionala edo surrealista dela, hein handi batean, eta bere hari semantikoa heltzea gaitza suertatzen dela, maiz. Mujikaren iruditeriari, bada, ikusmira bat ematerakoan zailtasun ukaezinezkoekin aurkitzen gara, eta, horietan nagusiena, dudarik gabe, *Zortziko Hautsiak* (eta beste poemategietan) isladatzen den mintzo metaforiko surrealista hermetikoan datza.

Gure lana bere olerkigintzaren alde batzuk argitzera etorri da. Ez dugu pausu bat baino eman, oraingoz.

## Notas sobre la etapa más desconocida de un político y escritor vasco: Jon Andoni Irazusta, de parlamentario a misionero en Perú (1950-1952)

ÓSCAR ÁLVAREZ GILA \*

**H**ace ya tiempo que se puso en evidencia cómo una de las facetas más desconocidas de la Guerra Civil española ha sido la suerte de los leales a la República que, después de 1939 y a raíz de su derrota militar, hubieron de exilarse en diversos países de Europa y América. Ciertamente, en las dos últimas décadas, tras la recuperación democrática y con la renovación temática y metodológica que ha experimentado la historiografía contemporánea, se han subsanado en parte ésta y otras carencias. Pero, a pesar de todo, siguen siendo muchos los elementos de ese complejo mundo del exilio que precisan todavía de un análisis más pormenorizado, partiendo de la recuperación de un buen número de interesantes pero aún hoy desconocidas “historias” personales, cuya suma y entrelazamiento conforman, en buena medida, el devenir vital de cuatro largas décadas de extrañamiento (1).

Precisamente, estas breves notas pretenden mostrar la etapa más desconocida de una de esas peculiares historias personales a las que acabamos de aludir, dando cuenta al mismo tiempo de la rica pero no

(1) Sin pretender ser exhaustivos, cabe citar, entre otras, obras como la pionera de Javier RUBIO (*La emigración de la Guerra Civil de 1936-1939. Historia del éxodo que se produce con el fin de la Segunda República Española*, Madrid, 1977), o el amplio estudio dirigido por José Luis ABELLÁN (*El exilio español de 1939*, Madrid, 1978, 6 volúmenes), autor asimismo de la obra *De la Guerra Civil al exilio republicano (1936-1977)*, Madrid, 1983. Igualmente, el número 473-474 de *Cuadernos Hispanoamericanos*, de 1989, estuvo dedicado monográficamente al exilio tras la Guerra Civil. Más recientemente, han sido varias las reuniones científicas realizadas para analizar el exilio, especialmente hacia Francia, entre otras las patrocinadas por la AEMIC (Asociación para el Estudio de los Exilios y Migraciones Ibéricas Contemporáneas). Para el caso concreto del exilio vasco, los estudios no son todavía lo amplios y rigurosos que sería conveniente, primando los trabajos descriptivos, de corte más periodístico que historiográfico.

\* Universidad del País Vasco